

LABORAL
kutxa



Caja Laboral Popular Coop. de Crédito

Zuhurtziazko Garrantziko informazioa
2023ko abenduaren 31n



1. Sarrera	4
2. Aplikazio-eremua	7
3. Arriskua Kudeatzeko Helburuak eta Politikak	9
3.1. Kreditu- eta kontrako alderdiaren arriskua.....	15
3.2. Merkatu-arriskua	18
3.3. Arrisku operatiboa.....	19
3.4. Balantzeko interes-tasaren arriskua negoziazio-zorrotik kanpo	20
3.5. Likidezia- eta finantzaketa-arriskua	22
3.6. Arrisku sistemiko globala	23
3.7. Arrisku-profilaren deskribapena eta enpresa-estrategiarekin lotutako politikak	24
3.8. Gobernantza-mekanismoak.....	25
4. Arriskuaren arabera Haztatutako Esposizioen Funtsezko Adierazleak eta Panoramika	39
4.1. Barne-kapitalaren egokitasuna ebaluatzeko prozesua	39
4.2. Arriskuarekiko Esposizioaren Zenbatekoak eta Adierazleak	41
5. Funts Propioei buruzko informazioa	45
6. Zikloen aurkako Kapitalaren Koltxoiak	48
7. Palanka-efektuaren ratioa	49
8. Likidezia-betekizunak	52
8.1. Eskakizun orokorrak	52
9. Kreditu-Arriskuei buruzko informazioa	54
9.1. Kreditu-arriskuarekiko eta diluzio-arriskuarekiko esposizioa.....	54
9.2. Metodo Estandarraren erabilera	59
9.3. Kreditu-arriskua murrizteko teknikak	60
10. Titulizazio-Posizioekiko esposizioak	62
11. Merkatu-Arriskurako Metodo Estandarra erabiltzea	63
11.1. Eskakizun orokorrak	63
12. Eragiketa-arriskuari buruzko informazioa	64
13. Negoziazio-zorroan agertzen ez diren errenta aldakorreko esposizioak	65



14. Negoziazio-zorroan sartuta ez dauden posizioetako interes-tasaren arriskuari buruzko informazioa	67
15. Kargadun eta Kargarik Gabeko aktiboak	69
16. Ordainketa-politika	71
Taulen indizea	78



1. Sarrera

Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordea nazioarteko finantza-erregulazioaren harmonizazioaren buru da. Batzorde honek lortutako akordioen bidez, kreditu-erakundeentzako lehen erregulazio bat antolatu zen, arrisku guztien % 8ko gutxieneko kapitala ezarri zuena (Basilea I, 1988). Ondoren, 2004an, Basilea IIk arriskua zenbatesteko mekanismoen sentsibilitatea hobetu zuen, eta bi zutabe berri gehitu zituen: kapitalaren eta arriskuen autoebaluazioa entitate bakoitzeko (II. zutabea) eta merkatu-diziplina (III. zutabea). 2010eko abenduan, Batzordeak arau-esparru berri bat onartu zuen (Basilea III), kalitate hobeko tresnekin kapital-eskakizunak areagotzen dituen eta sendotasuna eta entitate eta herrialdeen arabera aplikazio homoginoa bilatzen dituen. Kapital-akordio berriak kapital-ratioen gardentasuna eta alderagarritasuna hobetzen ditu. Gainera, zuhurtziazko tresna berriak ditu likideziaren eta palanka-efektuaren esparruan.

Europar Batasunak bere ordenamendu juridikora eraman zituen akordio horiek (Basilea III), 2019ko urtarrilaren 1era arte faseka sartzeko eredu baten pean (phase-in), honako hauen bidez: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/EB Zuzentaraua (CRD-IV), kreditu-entitateen jardueran sartzeari eta kreditu-entitateen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko gainbegiratzeari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013/EB Erregelamendua (CRR), kreditu-entitateen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko betekizunei buruzkoa, 2014ko urtarrilaren 1etik aplikagarria Europako Erkidegoen Egunkari Ofizialean.

Ordenamendu juridiko nazionala nazioartean ezartzen diren arau-aldaketetara egokitzeko, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legea onartu zen, azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak eta Espainiako Bankuaren 2/2014 Zirkularrak hasitako transposizioarekin jarraituz. Zirkular horrek trantsizio-aldian aplikatzekoak diren errekerimenduak arautzeko aukerak ezartzen ditu. Indarreko araudiak (I. zutabea) ezartzen dituen gutxieneko baliabide propioen eskakizunak kalkulatzeko, Taldeak kreditu-arriskuarekiko, kanbio-arriskuarekiko, negozioazio-zorroaren arriskuarekiko, merkatu-arriskuarekiko eta eragiketa-arriskuarekiko duen esposizioa hartzen da kontuan. Horrez gain, arrisku-kontzentrazioaren mugak bete beharko ditu Taldeak.

84/2015 Errege Dekretuak, otsailaren 13koak, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legea garatzen duenak, aipatutako legearen erregelamendu-garapena osatzen du, eta, aldi berean, testu bakar batean biltzen ditu argitaratu arte kreditu-entitateen antolamendu eta diziplinako erregelamendu-karguko arau guztiak.

Era berean, nabarmentzekoa da 2015-2019 aldian araudi berriak argitaratu zirela CRR Erregelamendua osatzeko, Fondo Propioei, Likideziari, I. Zutabeko Arriskuei eta Kapital-eskakizunei buruzko gaietan.



Horrela, bada, 2016ko otsailaren 2an, Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularra jaulki zen, kreditu-entitateei dagokienez 2013/36/EB Zuzentarauaren transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora osatzea helburu nagusizat duena. Gainera, 575/2013 (EB) Erregelamenduak agintari nazional eskudunei esleitzen dien aukeretako bat jasotzen da, Espainiako Bankuak 2/2014 Zirkularrean erabili zituzenez gain.

Zirkular horrek, halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko 2011/89/EB Zuzentarauaren transposizioaren alderdi batzuk garatzen ditu. Zuzentaru horrek 98/78/EE, 2002/87/EE, 2006/48/EE eta 2009/138/EE Zuzentaruak aldatzen ditu, finantza-multzo bateko kide diren finantza-entitateen gainbegiratze osagarriari dagokionez. Zuzentaru hori, funtsean, 10/2014 Legeak eta 84/2015 Errege Dekretuak, hurrenez hurren, finantza-konglomeratuak gainbegiratzeari buruzko eta finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzen dituen apirilaren 22ko 5/2005 Legean eta hura garatzen duen 1332/2005 Errege Dekretuan egindako aldaketan bidez aldatu da.

2017ko ekitaldian, Espainiako Bankuaren urriaren 24ko 3/2017 Zirkularra argitaratu zen, urtarrilaren 31ko 2/2014 Zirkularra aldatzen duena. Zirkular honen helburu nagusia da 2/2014 Zirkularrean zenbait alderdi egokitzea, garrantzi txikieneko kreditu-entitateei dagokienez, Europako Banku Zentralak erakunde esanguratsuentzat onartutako azken xedapenetara (batez ere, Europako Banku Zentralaren 2017/697 (EB) Orientazioa, 2017ko apirilaren 4koa, agintari nazional eskudunek Batasunaren eskubideak garrantzi gutxien duten erakundeekiko eskaintzen dituen aukerak eta ahalmenak baliatzeari buruzkoa). Era berean, 2017ra arte aplikatzekoak ziren aukera iragankorrei buruzko arauak ezabatu ziren.

Azkenik, 2019ko ekitaldian, Espainiako Bankuaren urriaren 22ko 3/2019 Zirkularra argitaratu zen, zeinaren bidez 557/2013 EB Erregelamenduak emandako ahalmena gauzatzen baita, mugaeguneratutako obligazioen adierazgarritasun-atalasea definitzeko helburuarekin, 2020ko abendutik aurrera aplikagarria.

Gainera, 2020ko ekitaldian, 2020/873 (EB) Erregelamendua onartu zen, honako alderdi hauek barne hartuta: FINA 9 arauaren aplikazioari buruzko xedapen iragankorren luzapena, bonu subiranoen esposizioei buruzko aldi baterako zehurtziazko iragazki bat sartzea, palanka-efektuaren ratioaren kalkuluan aldi baterako aldaketak egitea, adierazle horren gainean aurreikusitako koltxoen galdagarritasuna 2023ko urtarrilaren 1era arte atzeratzea erakunde sistemikoetarako, pentsio edo soldaten bidez bermatutako mailegu jakin batzuei dagokienez kapital-eskakizunak murrizteko neurriak, eta ETEentzako eta azpiegiturentzako maileguak, eta kreditu-agentziek sektore publikoko beste bermatzaile batzuetara esportatzeko bermatzen dituzten zalantzazko maileguen lehentasunezko tratua zabaltzea.

Horrez gain, Batzordearen 2020/2176 (EB) Erregelamendu Eskuordetua argitaratu zen, programa informatikoen barne-garapenei lotutako aktibo ukiezinen indarreko kenkaria aldatzen zuena; Europako Banku Zentralaren 2021eko ekainaren 18ko 2021/1074 Erabakiak, berriz, berretsi zuen 2019ko abenduaren 31tik aurrera mantentzen direla zenbait baldintza betetzen dituzten banku zentralen aurreko esposizioen palanka-efektuaren ratio osoaren zenbaketatik salbuestea justifikatzen duten salbuespenezko inguruabarrak, eta salbuespen horren aldia 2022ko martxoaren 31ra arte luzatzen dela,



Europako Banku Zentralaren 2020ko irailaren 16ko 2020/1306 Erabakian ezarritako 2021eko ekainaren 28ra arteko aurreko bazterkeria-aldiaren aldean.

Aurreko paragrafoetan aipatutako araudia osatzeko, CRD V Espainiako araudira ekarri da, apirilaren 27an argitaratutako 7/2021 Errege Lege Dekretuaren, azaroaren 9an argitaratutako 970/2021 Errege Dekretuaren (84/2015 Errege Dekretua aldatzen duena) eta Espainiako Bankuaren 5/2021 Zirkularren (abenduaren 23an argitaratua, Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularra aldatzen duena) bidez, eta, horrela, amaitu egin da Europako araudian ezarritako kreditu-entitateen gainbegiratze- eta kaudimeneskakizunak Espainiako araudira egokitzea.

CRR Erregelamenduan ezarritako eskakizunen arabera, kreditu-entitateek % 8ko guztizko kapital-ratioa bete beharko dute uneoro. Hala ere, kontuan hartu behar da arautzaileek beren botereak arau-esparru berriaren arabera egikari ditzaketela, eta entitateei kapital-maila osagarriei eusteko eskatu ahal dietela.

Ildo horretan, 2023ko abenduaren 5ean, Entitateak jakinarazpen bat jaso zuen Espainiako Bankuaren aldetik, Entitateari aplika dakizkiokeen zuhurtziazko gutxieneko eskakizunei buruzko erabakiari buruz. Horren bidez, Laboral Kutxak Common Equity Tier 1 (CET 1) ratioari eutsi behar dio, kapital erregulatorioaren % 8,125 neurtuta. Betekizun horrek 1. zutabeak eskatzen duen gutxienekoa eta 2. zutabeak eskatzen duena barne hartzen ditu, kapitalari eusteko koltxoia barne. Era berean, 1. zutabeko % 8ko eskakizunetik abiatuta, Kapital Osoaren gutxieneko eskakizunak % 11,625ekoak dira.

% 8,125eko CET1 eskakizuna honela osatuta dago: 1. zutabeak eskatzen duen gutxieneko CET1 maila (% 4,5), 2. zutabearen eskakizuna (% 1,125) eta kapitalari eusteko koltxoia (% 2,5).

Dokumentu honen helburua da CRR Erregelamenduan definitutako merkatu-informazioko betebeharrak betetzea. laboral Kutxa talde bateratuaren Zuhurtziazko Garrantzia duen Informazioko dokumentua da, 2023ko abenduaren 31n. Barne Ikuskaritzako Departamentuak egiaztatu eta, azkenik, Kontseilu Errektoreak onartu zuen, 2024ko martxoaren 22an.



2. Aplikazio-eremua

a) Erregelamendu honetako baldintzak zein entitateri aplikatzen zaizkion

CRR Erregelamenduaren 436. artikulua ezartzen duenez, dokumentu honetan aurkeztu den informazioa Caja Laboral Popular Coop. de Crédito entitate nagusia duten kreditu-entitateen talde kontsolidagarriari dagokio. Aurrerantzean, Laboral Kutxa Taldea edo Taldea izango da maila bateratuko informazioa denean, eta Laboral Kutxa edo Entitatea banakako informazioa denean.

b) Kontabilitate-esparruaren eta baterakuntzako erregelamendu-eremuaren arteko diferentzia-iturri nagusiei buruzko informazio kualitatiboa

Jarraian, Talde Kontsolidagarria osatzen duten sozietateen xehetasuna eta partaidetza duten sozietateen zerrenda aurkeztuko ditugu:

Entitatearen izena	Kontabilitate kontsolidatze metodoa	Zuhurtziazko kontsolidaziorako metodoa					Erakundearen deskribapena
		Kontsolidazio Osoa	Kontsolidazio Proporzionala	Kontsolidazio Baliokidetasuna	Ez kontsolidatua ezta kendutakoa ere	Kendutakoak	
Caja Laboral Popular Coop. de Crédito	-	-	-	-	-	-	Kreditu-Erakundea
Caja Laboral Gestión, S.G.I.L.C. S.A.	Integrazio Globala	X					Inbertsio-funtsen kudeatzailea
Caja Laboral Pensiones, G.F.P., S.A.	Integrazio Globala	X					Pentsio-funtsen kudeatzailea
ISGA Inmuebles, SA,	Integrazio Globala	X					Aktibo Higiezinaren kudeatzailea
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera, S.L.U.	Integrazio Globala	X					Partaidetza-edukitzailea
Caja Laboral Banca Seguros, O.B.S.V, S.L.U.	Integrazio Globala	X					Banka Aseguruetako operadorea
Seguros Lagun-Aro Vida, S.A.	Partaidetza		X				Aseguruak
Seguros Lagun-Aro, S.A.	Partaidetza		X				Aseguruak
Seguros Lagun-Aro 2003, A.I.E.	Partaidetza		X				Zerbitzuak ematea
Partners Group Lamiak S.C.A., SICAV-RAIF	Partaidetza		X				Ondarearen kudeaketa
Lagun Klik S.L.U.	Partaidetza		X				Zerbitzuak bilatzeko bitartekaritza
ATEGI Green Power, S.L.	Partaidetza		X				Beste mota batzuetako energia elektrikoaren ekoizpena

1. taula: Talde kontsolidagarria eta sozietate partaidenak.

CRR Erregelamenduaren ondorioetarako kreditu-entitateen talde kontsolidagarriaren eta talde kontsolidatuaren artean dauden alde nagusiak, 4/2017 Zirkularrean definitzen den moduan, honako hauek dira, laburbilduta:

Talde kontsolidagarriari dagokion informazioa prestatzean, Espainiako Bankuaren 4/2017 Zirkularrean definitzen den integrazio globalaren metodoa aplikatuz baino ez dira finkatu mendeko sozietateak, hau da, "beren jardueragatik entitate kontsolidagarriak" direnak. Beren jardueragatik kontsolidagarriak ez diren mendeko sozietateentzat "partaidetzaren metodoa" aplikatu da, KNA 28an definitzen den bezala.

Taldearen urteko kontu kontsolidatuak egitean, mendeko enpresa guztiak kontsolidatu egin dira integrazio globalaren metodoa aplikatuta, beren jardueragatik kontsolidagarritzat jotzeko baldintzak betetzen dituzten ala ez alde batera utzita.

Beraz, araudi baten edo bestearen arabera modu desberdinean integratzen diren sozietateak honako hauek dira:



	Konsolidazio metodoa	Konsolidazio metodoa
<i>Entitatea</i>	<i>CRR Erregelamenduaren arabera</i>	<i>4/2017 Zirkularraren arabera</i>
Seguros Lagun-Aro Vida, S.A.	Partaidetza	Integrazio Globala
Seguros Lagun-Aro, S.A.	Partaidetza	Integrazio Globala
Seguros Lagun-Aro 2003, A.I.E.	Partaidetza	Integrazio Globala
Partners Group Lamiak S.C.A., SICAV-RAIF	Partaidetza	Integrazio Globala
Lagun Klik S.L.U.	Partaidetza	Integrazio Globala

2. taula: Modu desberdinean integratzen diren sozietateak CRR Erregelamenduaren eta 4/2017 Zirkularraren arabera

CRR Erregelamenduan ezartzen denez, baliabide propioetatik kendu behar dira entitateak zuzenean, zeharka edo sintetikoki finantza-entitateetan dituen tresnak, entitateak horietan inbertsio esanguratsu bati eusten dionean, eta partaidetzakoaren kapitalaren % 10etik gorako partaidetza esanguratsutzat jotzen da. Horrez gain, ez dago zenbateko horiek kendu beharrik atalase jakin batzuk gaingitzen ez dituzten neurrian.

Aurreko paragrafoa aplikatuz, ez da inolako zenbatekorik kendu baliabide propioetatik

c) *Fondo propioak transferitzeko edo pasiboa itzultzeko eragozpenak*

Ez dago inolako eragozpenik, ez materiala, ez praktikoa, ez juridikoa, Laboral Kutxaren eta haren mendeko Entitateen artean fondo propioak berehala transferitzeko edo pasiboak itzultzeko.

d) *Finkatzean eskatutakoa baino funts propio txikiagoekin sartzen ez diren filialak*

Gaur egun, Laboral Kutxaren Talde Kontsolidatuaren barruan ez dago talde kontsolidagarrian sartuta ez dagoen mendeko Entitaterik, ez eta talde mistoko aseguru-entitaterik ere, baldin eta haien baliabide propioak aplikatu beharreko araudiak eskatzen duen gutxienekoa baino txikiagoak badira.

e) *RRCren 7. artikulua aipatzen duen salbuespenaren erabilera edo RRCren 9. Artikuluan ezarritako banakako konsolidazio-metodoa*

Entitateak ez du eskatu filialei kapitalaren zuhurtziazko baldintzak aplikatzetik salbuesteko.



3. Arriskua Kudeatzeko Helburuak eta Politikak

Arriskuak finantza-entitateen eguneroko jardueran agertzen dira, eta, beraz, Laboral Kutxan, arriskuen gestioa eta arriskuen kontrol eraginkorra jardueraren alderdi erabakigarritzat eta lehiarako abantailarako faktore erabakigarritzat jotzen dira. Filosofia orokor gisa, arriskuak zuhurtasun-parametroen arabera kudeatzea erabaki da, eta arriskuak behar bezala neurtu eta kontrolatzeko beharrezkoak diren mekanismoak, sistemak eta baliabideak ezartzea. Nolanahi ere, arriskuen kudeaketa eta kontrol moderno eta dinamikoan aurrera egiten jarraitzeko bokazioa ahaztu gabe, barne-ereduetan oinarrituta, Entitateak arriskuak hobeto ezagutu eta horien kontrola eta kudeaketa optimizatu ahal izan ditzan.

Arrisku-politikaren helburua erabakiak hartzeko prozedura batzuk eta arriskuen aurrean jarduteko muga batzuk antolatzea da, emaitza errepikariak sortzeko eta, horrela, Entitatearen kaudimena bermatzeko, betiere Ikuskatzaileak ezarritako arau-esparruaren barruan.

Entitateak, arriskuen barne-kudeaketa Basileako araudira egokitzeko eta CRRren bidez Europako esparruan praktikan ezartzeko, barne-organo batzuk eratu ditu, jarraibide horiek prozesu operatibo eta formaletan eraginkortasunez ezartzen direla bermatzeko.

Kontseilu Errektorea

Entitateko administrazio-organo gorena da, arriskuak zaintzeko eta gainbegiratzeko azken arduraduna. Horregatik, arriskuak zorrotz kontrolatu behar ditu Zuzendaritza Nagusiak, eta arriskuei buruzko informazioaren deskargu sistematikoa egin behar du. Era berean, presentzia zuzena du hainbat Batzordetan.

Arrisku Batzordea

2014. urtearen amaieran eratu zen Arrisku Batzordea, eta Entitatearen arriskuarekiko grinaren Esparrua definitzeaz eta arriskuen jarraipena egiteaz arduratzen da.

Gaur egun, Kontseilu Errektoreko bost kidek osatzen dute Arrisku Batzordea. 2023an bederatzi aldiz bildu da, eta dokumentu honetako 3.8.1 atalean deskribatzen da haren funtzionamendua.

Zuzendaritza Nagusia

Kontseilu Errektoreak eskuordetuta, Zuzendaritza Nagusia arduratzen da arrisku-politikak ezartzeaz. Horretarako, Zuzendaritzak arriskuen funtzioa antolatu du, gestio komertzialaren eta arriskuen kudeaketaren erantzukizunaren artean funtzioak bereizteko premisaren pean, eta horien neurketa eta kontrola egiteko premisaren pean.

Bestalde, Entitateak dituen arriskuen egoeraren eta bilakaeraren berri Kontseilu Errektoreari emateko, Zuzendaritza Nagusiak hiru hilean behin egiten dio txostena Kontseilu Errektoreari, eta bereziki azpimarratzen du ezarritako mugak eta prozedurak zenbateraino betetzen diren.



Aktiboen eta Pasiboen Batzordea (APB)

Arriskuen Arearen reportingaren bidez arrisku guztien kontrola hileroko egiten duen organoa da.

Arriskuen Arearen eta Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuaren laguntzarekin, APB kontrol-organoa da interes-tasaren arriskuaren (egiturazkoa), likidezia-arriskuaren, merkatu-arriskuen eta kreditu-arriskuaren arloan.

Eragiketa Arriskuko Batzordea

Eragiketa-Arriskuaren arloko kontrol-organoa da. Eragiketa-Arriskuaren kudeaketarekin lotutako erabaki garrantzitsuak hartzea da bere funtzioa. Batzorde horretan, hiru hilean behin, honako alderdi hauek lantzen dira:

- Aldian gertatutako gertaera operatiboak: guztizkoak, guztizkoak kategorien eta banakako kasu esanguratsuen arabera taldekatuta
- Autoebaluazioak: emaitzak, arrisku handieneko eremuak, ekintza-plan esanguratsuak
- Eragiketa-arriskuagatiko kapitala
- Eragiketa-Arriskuarekin zerikusia duen beste edozein alderdi

Zuzendaritza Kontseiluko kideek, Barne Ikuskaritzako Zuzendariak, Arriskuaren Kontrol Globaleko Departamentuko Zuzendariak, Merkatu Arriskuaren eta Gobernantzaren Ataleko Buruak eta Arrisku Operatiboko Unitateko Arduradunak osatzen dute batzorde hori.

Produktu Batzordea

Produktu Batzordea 2015eko otsailean eratu zen, eta Laboral Kutxaren Zuzendaritza Nagusiaren mende dago organikoki eta funtzionalki. Hona hemen batzorde horren osaera:

Presidentea Negozio Areako Produktuaren Gobernantzako Arduraduna izango da, Idazkaria Araudia Betearazteko Teknikari bat, eta honako hauek hartuko dute parte: Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuko Zuzendariak, Bezeroaren Arreta Zerbitzuko Buruak, Pertsonen Departamentuko Kudeaketa Ekonomikoko Buruak, MMPP eta Kanalen Departamentuko Zuzendariak, Partikularren Negozio Garapeneko Zuzendariak, Enpresa-Negozio Garapeneko Departamentuko Zuzendariak, Diruzaintza eta Merkatu Saileko ordezkari batek eta Aholkularitza Juridikoko bi ordezkariak (Aholkularitza Juridiko Komertziala eta Aholkularitza Juridiko Espezializatua).

Era berean, Produktu Batzordean parte hartzeko eskatuko zaie Produktu Batzordeak tratatu beharreko Produktuaren eta/edo Zerbitzuaren arabera beharrezkotzat jotzen diren pertsona guztiei, bai Inbertsioei dagokienez, bai Bankuei dagokienez.



Funtzioei dagokienez, Produktu Batzordea arduratzen da "Produktuak eta/edo Zerbitzuak" onartzeko edo berrikusteko jarraitu beharreko antolamendu-eredua eta prozesua honako agertoki hauetan aplikatzeaz: (i) "Produktu eta/edo Zerbitzu berria" edo "Aldaketa esanguratsua onartutako produktuan eta/edo zerbitzuan" eta (ii) "Produktuak eta/edo Zerbitzuak", egoera betetzen ez dutenak (i).

Prozedura Inbertsio-Produktu eta/edo -Zerbitzuak nahiz Banku-Produktu eta/edo -Zerbitzuak onartzeko aplikatzen da. Politikaren egungo bertsioa 2022koa da.

Arriskuen Area

Zuzendari nagusiaren mende dago, eta Arriskuak Kudeatzeko Departamentua, Aholkularitza Juridikoko Departamentua eta Metodologiaren atala biltzen ditu.

Partikularren eta Enpresaren kreditu-arriskua onartu, jarraitu eta berreskuratzeko erantzukizuna zentralizatzen du, zentzu zabalean, eta kreditu-arriskuaren barne-ereduak eraikitzea eta mantentzea, bai eta likidezia-arriskuak, interes-tasak, merkatukoak eta operatiboak neurtu eta kontrolatzeko ere. Arriskuen kudeaketaren erantzukizuna arlo bakar batean kontzentratzeak sinergiak eta arintasun operatiboa sortzen ditu arrisku-politikaren orientazioen transmisioan, eta arrisku guztiak hobeto ezagutzen eta kontrolatzen ditu.

Kreditu-arriskua onartzeko, jarraitzeko eta berreskuratzeko prozesuen eraginkortasuna handitzeaz arduratzen da, baita Entitatearen arriskuen kontrol integralean sakontzeaz ere.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua

Arrisku Batzordearen mende dago. Arrisku guztien ikuspegi globala ematen du, Entitateak dituen arrisku guztien neurketa eta kontrola sail bakar batean zentratzen baita.

Bere funtzioen artean sartzen dira:

- Arrisku guztien neurketa eta kontrola
- Kreditu-arriskuaren onarpenerako eta jarraipenerako barne-ereduak eraikitzea eta mantentzea, Basileako eskakizunen arabera
- Arriskuarekiko Grinaren Esparruari buruzko gai guztiak kudeatzeaz arduratzen da, beharrak identifikatuz, tartean dauden arlo guztiak koordinatuz eta APBren, Arrisku Batzordearen eta Kontseilu Errektorearen aurrean proposamenak aurkeztuz, bai eta RASen jarraipena ere
- Arriskuen eta ICAAP eta ILAAP prozesuen gobernantza, Basileako II. zutabearen testuinguruan, eta zuhurtziazko garrantzia duen txostena egiten laguntzea, III. zutabearen testuinguruan
- I. eta II. zutabeetako arrisku guztien kapital-eskakizunak modu agregatuan kuantifikatzea



- Bere euskarri nagusia den APBn aktiboki parte hartzea, arriskuei buruzko kontrol-txostenak emanez
- Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari babesa eskaintzea arriskuen kudeaketarekin eta kontrolarekin lotutako eginkizunetan

Gainera, Arriskuaren Kontrol Globaleko Departamentuak bere atal eta unitateen beste erantzukizun espezifikoagoak ditu: Merkatu Arriskuaren eta Gobernantzaren Atala, Kreditu Arriskuaren Kontrolaren Atala, Barne Balidazioaren Atala eta Eragiketa Arriskuaren Unitatea.

Arriskuen Kudeaketaren Departamentua

Arriskuen Arearen mende dago, eta partikularrekin eta enpresekin kreditu-arriskua kudeatzeaz arduratzen da, Entitatearen arrisku-politika orokorraren esparruan.

Bere eginkizunen artean daude:

- Bezero-segmentuetan inbertitzeko politikak proposatzea.
- Arriskuak onartzeko eta horien jarraipena egiteko politika ezartzea.
- Kreditu-arriskuaren azterketa eta ebaluazioa kreditatuekin eta proiektuekin.
- Horretarako beharrezkoak diren prozedurak, tresnak eta eskuduntza-maila ezartzea:
 - Eragiketari/bezeroari buruzko txostenen edukiak.
 - Akreditatuak sailkatzeko eta haien jarraipena egiteko irizpideak.
- Eragiketak onartzeko organoetan parte hartzea.
- Arriskuaren jarraipena egiteko prozesuak estandarizatzea.
- Auzi-aurrearen kudeaketa.
- Itzulketa problematikoko eragiketak birfinantzatzeko/berregituratzeko aukerak aztertzea eta zehatzea.
- Auzi-aurreko espedientea egiteko prozesua estandarizatzea, bide judizialetik erreklamatzeko.
- Kobraezinen eskaerak izapidetzea eta zehatzea, bere eskumenen barruan.

Hainbat Ataletan egituratzen da: Arriskuen Kudeaketarako Euskarria, Enpresa Handien Arriskuen Analisia, ETEen Arriskuen Analisia, Negozioen eta Enpresa Txikien Arriskuen Analisia, Partikularren Arriskuen Analisia eta Adiskidetasunezko eta Auzi-aurreko Susperraldia.

Diruzaintza eta Merkatu Departamentua

Finantzen Arearen mende dago, eta finantza-erakundeekiko eta errenta finko pribatuko jaulkitzaileekiko kreditu-arriskua, merkatu-arriskuak, epe laburreko likidezia-arriskua eta APBn hartutako erabakietatik eratorritako posizioak kudeatzeaz arduratzen da.



Bi ataletan antolatzen da: Diruzaintza eta Kapital-Merkatuak.

Barne Ikuskaritzako Departamentua

Barne Ikuskaritzaren Funtzioak independentziaz jarduten du, Entitatearen arriskuak kudeatzeko eta kontrolatzeko esparruaren hirugarren defentsa-lerro gisa, eta Barne Ikuskaritzako Departamentua osatzen duten langileek gauzatzen dute.

Barne Ikuskaritzako Departamentua Kontseilu Errektoreko presidentearen mende dago hierarkikoki, eta Ikuskaritza eta Araudia Betearazteko Batzordearen ikuskaritzapean jarduten du. Departamentu hau Departamentuko Zuzendari baten eta lau funtzioaren inguruan antolatzen da, egiten duten jarduera motaren arabera: Prozesuen auditoretza eta Gobernu Korporatiboa, Arriskuen, kapitalaren eta ereduaren auditoretza, Negozioaren arriskuen auditoretza eta etengabeko auditoria eta IT eta zibersegurtasun arriskuen auditoretza.

Barne Ikuskaritzako Funtzioaren eginkizuna Entitatearen balioa hobetzea eta babestea da, eta, horretarako, arriskueta oinarritutako aseguramendu objektiboa, aholkularitza eta ezagutza eskaintzen ditu. Barne Ikuskaritzako Funtzioaren helburua aseguramendu- eta aholkularitza-zerbitzu independente eta objektiboak ematea da, Entitatearen eragiketarako hobetzeko eta balioa gehitzeko. Barne Ikuskaritzako Funtzioak bere helburuak betetzen laguntzen dio Entitateari, arriskuen kudeaketarako, kontroleko eta gobernuko prozesuen eraginkortasuna ebaluatzeko eta hobetzeko ikuspegi sistematiko eta diziplinatua emanez.

Barne Ikuskaritzaren Funtzioak independentziaz jarduten du, Entitatearen arriskuak kudeatzeko eta kontrolatzeko esparruaren hirugarren defentsa-lerro gisa, eta Barne Ikuskaritzako Departamentua osatzen duten langileek gauzatzen dute.

Barne Ikuskaritzako Departamentua Kontseilu Errektoreko presidentearen mende dago hierarkikoki, eta Ikuskaritza eta Araudia Betearazteko Batzordearen ikuskaritzapean jarduten du. Departamentu hau Departamentuko Zuzendari baten eta lau funtzioaren inguruan antolatzen da, egiten duten jarduera motaren arabera: Prozesuen auditoretza eta Gobernu Korporatiboa, Arriskuen, kapitalaren eta ereduaren auditoretza, Negozioaren arriskuen auditoretza eta etengabeko auditoria eta IT eta zibersegurtasun arriskuen auditoretza.

Barne Ikuskaritzako Funtzioaren eginkizuna Entitatearen balioa hobetzea eta babestea da, eta, horretarako, arriskueta oinarritutako aseguramendu objektiboa, aholkularitza eta ezagutza eskaintzen ditu. Barne Ikuskaritzako Funtzioaren helburua aseguramendu- eta aholkularitza-zerbitzu independente eta objektiboak ematea da, Entitatearen eragiketarako hobetzeko eta balioa gehitzeko. Barne Ikuskaritzako Funtzioak bere helburuak betetzen laguntzen dio Entitateari, arriskuen kudeaketarako, kontroleko eta gobernuko prozesuen eraginkortasuna ebaluatzeko eta hobetzeko ikuspegi sistematiko eta diziplinatua emanez.

Barne Ikuskaritzako Departamentuak garatzen du Entitatearen barne-ikuskaritzaren funtzioa. Hierarkikoki, Laboral Kutxako Kontseilu Errektoreko presidentearen mende dago, eta funtzionalki, Ikuskaritza eta Araudia Betearazteko Batzordearen mende.



Zehazki, honako hauek dira gainbegiratze-eremu nagusiak, izaera adierazgarriarekin eta ez mugatzailearekin:

- Entitatearen Gobernu-Esparrua egokitzea.
- Dauden politikek eta prozedurek egokiak izaten jarraitzen duten eta lege- eta arau-betekizunetara, arrisku-estrategiara eta entitatearen arrisku-gosera egokitzen diren.
- Prozedurak lege eta araudi aplikagarrietara eta zuzendaritza-organoaren erabakietara egokitzea.
- Prozedurak zuzen eta eraginkortasunez aplikatzen diren.
- Egindako kontrolen eta negozio-unitateek eta arriskuak kudeatzeko eta betetzeko eginkizunek aurkeztutako informazioaren egokitasuna, kalitatea eta eraginkortasuna.
- IKTen eta informazioaren segurtasunaren arriskuei buruzko gobernantza, sistemak eta prozesuak gainbegiratzea.
- Barne-ereduek erabilitako metodoen eta tekniken fidagarritasuna bermatzen duten prozesuen osotasuna gainbegiratzea, baita haiek erabilitako hipotesiak eta informazio-iturriak ere.

Araudia Betearazteko Departamentua

Kontseilu Errektorearen Auditoretza eta Araudia Betearazteko Batzordearen mende dagoen Araudia Betearazteko Departamentuaren funtzioaren eremuan honako gai hauek sartzen dira:

- Kapital-zuriketaren eta terrorismoaren finantzaketaren prebentzioa (KZTFP).
- Inbertitzailea babestea balore-merkatuen esparruan (MiFID, EMIR eta haren aplikazio-eremuko beste araudi batzuk).
- Kontsumitzailea babestea (LCI, LCC eta haren aplikazio-eremuko beste araudi batzuk).
- Balore-merkatuaren esparruko Jokabideen Barne Araudia. (JBA).
- Merkatu-abusua (MAR).
- Datu pertsonalen babesa (DBEO).



- Araudia Betearazteko Arduradunak Etika Batzordean parte hartzea. Kide anitzeko batzorde horretan, Delituak Prebenitzeko eta Erantzuteko Eskuliburua aplikatzen dela zaintzen da.
- Unean-unean indarrean dagoen legeriak berariaz zehazten dituen gaiak.

3.1. Kreditu- eta kontrako alderdiaren arriskua

a) *Kudeaketa-estrategiak eta -prozesuak.*

Kreditu-arriskua

Kreditu-arriskua honela definitzen da: kreditu-hartzaileek Entitatearekiko ordainketa-betebeharrak betetzen ez dituztelako sor daitekeen galera-arriskua. Kudeaketa-eremu bereziak diren heinean, berezi egiten dira Diruzaintzaren eta Kapital-Merkatuaren jardueraren ondoriozko kreditu-arriskua eta Partikularrekin, Autonomoekin eta Enpresekin egin ohi den inbertsio-jardueraren ondoriozko kreditu-arriskua.

Kreditu-arriskua kudeatzeko, hainbat politika eta prozedura ezarri dira, arrisku horren kudeaketa hobetzeko eta bulego-sareko arriskuen zehapena arintzeko, eta, aldi berean, araudiaren ondoriozko arau-eskakizunak betetzeko.

Arriskua onartzeko prozedura antzekoa da segmentu guztietan, baina enpresa-segmentuetan ratinga erabiltzen da bezeroaren kreditu-maila kalifikatzeko, eta partikularretan eta autonomoetan scoringa erabiltzen da onarpen erreaktiboan eragiketa/bezeroa binomioa sailkatzeko, eta ratinga arriskua modu proaktiboan emateko (aurrez emandakoak).

Kontrako alderdiaren arriskua

Kontrako alderdiaren arriskua eragiketa batean alderdi kontrarioak eragiketa horretako kutxa-fluxuen behin betiko likidazioa egin aurretik ordaindu ezin izateko arriskua da. Dokumentu horren barruan, Diruzaintza Departamentuaren eragiketen kreditu-arriskutzat hartzen da, eta, beraz, errenta finkoaren jaulkipen-arriskua eta bankuen arteko eragiketen kreditu-arriskua ere biltzen ditu.

Entitatearen kontrako alderdiaren arriskua kudeatzeko, esposizioaren gehieneko muga batzuk ezartzen dira Entitatearen estrategiaren arabera, Finantza Entitateentzat eta Korporazio Handientzat, Diruzaintzaren eta Kapital Merkatuen esparruan. Kontrako alderdiaren/taldearen arabeko mugez gain, arriskuaren kontzentrazio-mugak ere ezarri dira, erreferentziaren, gestorearen eta arriskuaren mendetasun-mailaren arabera.

Urtero, Diruzaintza eta Merkatu Departamentuak linea izateko nahi dituen kontrako alderdien zerrenda bat proposatzen du, eta linea horien mugak horien kreditu-kalifikazioaren arabera ezartzen dira.



b) *Arriskua kudeatzeko funtzioaren egitura eta antolamendua.*

Kreditu-arriskua

Laboral Kutxaren Kontseilu Errektoreko kideek osatutako Arrisku Batzordea da kreditu-arriskua kudeatzeko organo nagusia.

Kreditu-arriskuaren gestioaren eremuan, Laboral Kutxaren antolamendua honako area eta departamentu hauetan oinarritzen da:

Txikizkako sarea eta Enpresa-sarea

Partikularren bulegoak eta Merkataritza Zuzendaritzen mendeko enpresa-bulegoak kreditu-arriskua onartzeko prozesuaren lehen fasea dira, eskuordetutako ahalmenak dituzten eremuraino.

Arrisku-analisten taldeak

Bezero-tipologia bakoitzeko analista-taldeak (Partikularrak, Negozioak eta Enpresa Txikiak, ETEak edo Enpresa Handiak) kreditu-arriskua onartzeko prozesuaren bigarren maila dira.

Zerbitzu Zentralen Batzorde Delegatua

Arriskuen Areako ordezkariak osatutako Zerbitzu Zentralen Batzorde Delegatuak bulegoen eta arrisku-analisten taldeen eskumenak gainditzen dituzten eragiketak berresten ditu.

Batzorde Nagusia

Batzorde Nagusia Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritzako kideek osatzen dute, eta Batzorde Delegatuaren muga gainditzen duten eragiketak berresteko ardura du.

Arriskuen Kudeaketaren Departamentua

Arriskuen Arearen mende dago, eta kreditu-arriskua kudeatzen du. Horretarako, zenbateko jakin bateko arriskuen berrestean parte hartzen du, Batzorde Delegatuan parte hartuz eta Batzorde Nagusian izapidetuz, eta horien euskarri nagusia da.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua

Arrisku Batzordearen mende dago, eta kudeaketa-segmentuei dagozkien kreditu-arriskua kudeatzeko barne-ereduak eraikitzeaz eta mantentzeaz arduratzen da, baita Entitateak dituen arriskuen jarraipena egitea ahalbidetzen duten txostenak egiteaz ere.

Kontrako alderdiaren arriskua

Laboral Kutxan, Arriskuaren Kontrol Globaleko Departamentua arduratzen da bankuen arteko arriskurako mugak proposatzeaz, Diruzaintza eta Merkatu Departamentuak eskatuta. Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak onartuko ditu muga horiek.



c) *Arriskuak neurtzeko eta informatzeko sistemen irismena eta izaera.*

Entitatearen kreditu-arriskuaren kudeaketaren barruan, honako fase hauek bereizten dira:

Onarpena

Laboral Kutxaren kreditu-arriskua kudeatzeko prozesuaren funtsezko zati bat hainbat estatistika-eredu eta irizpen hau osatzen duten erabaki-arau batzuk erabiltzea da.

Entitateak arriskuak emateko hainbat eredu ditu ezarrita sarean, Partikularren eta Enpresen segmentuetan. Eredu horiek Entitatearen barruan garatu dira, eta irteerak hainbat abisu eta alertarekin osatzen dira. Horiei esker, eredu desberdinekin lortutako emaitzak kreditu-arriskua kudeatzeko politiketara eta Laboral Kutxaren kreditu-zorroaren errealitatera egokitu daitezke.

Jarraipena

Laboral Kutxarentzat, onartutako arriskuen jarraipenaren helburua kreditu-itunak betetzen direla zaintzea da, haren indarraldian arriskua areagotzen duen edozein zirkunstantzia detektatu ahal izateko, eta bezeroak ingurune aldakor batean inplikaturako elementu dinamikotzat hartzeko.

Arriskuaren jarraipena egiteko, Entitateak aurrezaintzako alerta-ereduak ditu, etorkizuneko ez-ordaintzeen egoerak aurreikusteko (30 eguneko berandutza), eta egoera problematikoen kudeaketa proaktiboa ahalbidetzen dute, ez-ordaintzeak gertatu aurretik.

Berreskuratzea

Laboral Kutxak funtsezkotzat jotzen du berreskuratze-jarduera arriskuen gestioaren barruan. Berreskuratze-funtzioaz arduratzeko, Entitateak Adiskidetasunezko Susperraldiaren eta Auzi-aurrearen Atala (Arriskuak Kudeatzeko Departamentuaren barne) eta Auzibidezko Aholkularitza Juridikoaren Atala (Aholkularitza Juridikoko Departamentuaren barne) ditu.

Ildo horretan, Laboral Kutxak ordaingabeak prebenitzeko tresnak ditu, hala nola arriskuen politika egokia, arriskuen estaldura egokia eta jarraipen-metodologia. Horrez gain, egoera irregularrak kudeatzeko prozedura bat ere badu, adiskidetasunezko bidea edo, hala badagokio, auzi-bidea erabiliz.

d) *Arriskua estaltzeko eta murrizteko politikak, eta horien eraginkortasuna modu jarraituan ikuskatzeko estrategiak eta prozesuak.*

Arriskua estaltzeko eta arintzeko politikei dagokienez, inbertsio-jarduera gehienak etxebizitzaren finantzaketarekin lotuta daude, eta hipoteka-bermeak dituzte. Gainera, abalak, diru-gordailuak eta finantza-aktiboak estaltzen ditu kreditu-kalitate txarragokotzat jotzen diren gainerako eragiketetan.



Entitateak, oro har, Espainiako Bankuak ezarritako araudia betetzen duten tasatzaileek egindako tasazio-balioaren arabera baloratzen ditu berme errealak, ondasun higiezin gisa.

Diruzaintzaren eta kapital-merkatuaren eremuan finantza-entitateekiko eta errenta finko pribatuarekiko arriskuari dagokionez, urtero ezartzen dira mugak, alderdi kontrarioaren/taldearen, erreferentziaren, gestorearen eta mendeko arriskuaren arabera. Horretarako, mugak esleitzeko prozedura bat ezarri da, ratingetan zein iragazki eta alerta batzuetan oinarritzen dena.

Arrisku-muga horien betetze-mailaren jarraipena eta kontrola denbora errealean egiten da.

3.2. Merkatu-arriskua

Posizioen merkatu-balioan galerak izateko arriskua da, arrisku-faktoreek (interes-tasak, kanbio-tasak, akzio-prezioak eta komoditien prezioak) kontrako mugimendua izatearen ondorioz.

a) Kudeaketa-estrategiak eta -prozesuak.

Merkatu-arriskuak neurtzeko, alde batetik, Zorro Estrategikorako arrisku-zenbatekoa erabiltzen da, eta, bestetik, Trading Zorrorako Value at Risk (VaR) kalkulatzeko metodoa.

Ildo beretik, merkatu-arriskuen mugen sistema Zorro Estrategikorako gehieneko zenbatekoaren arabera ezarri da, eta VaR terminoetan, stop loss-ekin osatuta, Trading Zorrorako.

b) Arriskua kudeatzeko funtzioaren egitura eta antolamendua.

Merkatuko arriskuen kudeaketan parte hartzen dute, alde batetik, Diruzaintza eta Merkatu Departamentuak, ezarrita duen jarduera-esparruaren barruan arrisku-posizioak eta horien kudeaketa bere gain hartzen baititu, eta, bestetik, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuak, zeinak prezioen kontrolaz, aktiboen balorazioaz eta diruzaintzako emaitzen eta arriskuen kontrolaz arduratzen baita.

c) Arriskuak neurtzeko eta informatzeko sistemen irismena eta izaera.

Merkatu-arriskua diruzaintza-aretoko era guztietako zorroen (propioak eta/edo hirugarrenenak) kudeaketa integrala ahalbidetzen duen aplikazio baten bidez kudeatzen da.

Tresna hori hainbat modulutan banatuta dago, eta hainbat funtzio dituzte:

- Posizioak denbora errealean kontrolatzea eta posizio baliokideak kudeatzea, bai eta simulazioak egitea ere.
- Edozein jarduera mota kudeatzea, bai emaitzei dagokienez, bai arriskuei dagokienez.



- Jarduera, finantzaketa-kostua, balorazio-merkatuko datuak eta emaitzen eta horien analisisen kontrola kontrolatzea.
- Eragiketak kontrolatzea (eragiketak baliozkotzea).
- Merkatu-arriskuaren kudeaketa, VaR analitikoa, Monte Carlo bidezko VaR, VaR historikoa eta VaR Extreme Value kalkulatu.
- Hegazkortasunen eta korrelazioen berezko matrizeak sortzea.

d) *Arriskua estaltzeko eta murrizteko politikak, eta horien eraginkortasuna modu jarraituan ikuskatzeko estrategiak eta prozesuak.*

Laboral Kutxaren barruan merkatu-arriskuaren kudeaketaren eraginkortasuna ikuskatzeko, segimendu-txostenak egiten dira hilero, gestio sakonagoa egiteko.

3.3. Arrisku operatiboa

a) *Kudeaketa-estrategiak eta -prozesuak.*

Arrisku operatiboa galerak izateko arriskua da, prozesuen, langileen eta barne-sistemen desegokitasunagatik edo akatsengatik, edo kanpoko gertakariengatik. Gaur egun, Entitateak metodo estandarren bidez ematen du Arrisku Operatiboagatik kapital erregulatorioaren zenbatekoa, CRR Erregelamenduan azaldutako jarraibideen arabera.

Hauek dira Entitateko Arrisku Operatiboaren kudeaketaren printzipio inspiratzaileak: langileen eta zuzendaritzaren osotasun- eta etika-maila altuak, entitate osoan kontrol-ingurune eta -kultura eraginkorra izatea, negozio-jardunbide onetikiko atxikimendu zorrotza eta arriskuarekiko esposizioarekiko tolerantzia txikia.

Arrisku operatiboaren kudeaketak entitate osoari eragiten dio, maila guztietan, identifikazio-, ebaluazio-, jarraipen-, neurketa- eta arintze-zikloa Laboral Kutxak esposizio materiala duen arrisku guztiei aplikatzeko, baita sozietate filial guztiei ere.

Arrisku horretarako politika espezifikoak Laboral Kutxaren Arrisku Operatiboa Kudeatzeko Politikan daude zehaztuta. Politika hori 2023ko otsailaren 1ean onartu zen.

b) *Arriskua kudeatzeko funtzioaren egitura eta antolamendua.*

Arrisku Operatiboaren Unitatea, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuaren barne, arrisku operatiboaren kudeaketa-zikloa ezartzeaz eta gauzatzeaz arduratzen da.

Arrisku Operatiboko Unitatea kokatuz, funtzioen bereizketa bermatu nahi da Barne Ikuskaritzaren funtzioari eta negozio-unitateei dagokienez, eta Arrisku Operatiboaren Kudeaketa Entitatearen kudeaketa globalaren eta arriskuen kontrolaren esparruan integratzen lagundu.



Horrez gain, honako hauek daude:

- Koordinatzaileen Sarea, negozio- edo euskarri-arloen egunerokoa eragiketa-arriskuaren kudeaketa behar bezala ezartzen dela bermatzeaz arduratzen dena.
- Balidatzailearen irudia, saileko edo zuzendaritzako arduradunaren profilari dagokiona. Bere eginkizunen artean, nabarmentzekoak dira Arrisku Operatiboa Kudeatzeko Sistemak bere ardurapeko departamentuaren/zuzendaritzaren barruan ondo funtzionatzen duela ziurtatzea eta eremuan eragin handiena duten ekitaldi operatiboen jarraipena gainbegiratzea.

c) *Arriskuak neurtzeko eta informatzeko sistemen irismena eta izaera.*

Arrisku Operatiboa kudeatzeko erabiltzen den tresna informatikoa datu kualitatiboak eta kuantitatiboak biltzeaz eta biltegitzeaz arduratzen da. Zehazki:

- Arriskuen autoebaluazioak eta ekintza-planak
- Galera operatiboen datu-basea

Arrisku operatiboaren ereduaren elikatze-iturriak honako hauek dira:

- Datu-base kualitatibo, arrisku eta kontrolen mapak, autoebaluazioak eta ekintza-planak kudeatzeko eta mantentzeko.
- Datu-base kuantitatiboa, arrisku operatiboko gertaerek eragindako barne-galerak erregistratzeko.

d) *Arriskua estaltzeko eta murrizteko politikak, eta horien eraginkortasuna modu jarraituan ikuskatzeko estrategiak eta prozesuak.*

Entitateko arrisku operatiboa arintzeko eta prebenitzeko politika arrisku operatiboa kudeatzeko tresnetan erregistratutako gertaera historikoen azterketan eta azterketa horren emaitzetan oinarritutako jarduketaren garapenean oinarritzen da.

Horretarako, lehen esan bezala, hainbat tresna ditu galera-gertaerak prebenitzea eta jarraipen-ekintzak aktiboki kudeatzea ahalbidetzen dutenak.

3.4. Balantzeko interes-tasaren arriskua negoziazio-zorrotik kanpo

a) *Kudeaketa-estrategiak eta -prozesuak.*

Interes-tasaren arriskua entitatearen emaitza-kontuan eta ondare-balioan interes-tasen kontrako mugimendu baten ondorioz sor daitezkeen galerei dagokie.



Laboral Kutxak sistematikoki aztertzen du interes-tasaren arriskuarekiko esposizioa, eta gestio aktiboa ezartzen du, interes-tasen ustekabeko bilakaerek Emaizta-Kontuan eta Entitatearen balio ekonomikoan izan ditzaketan inpaktu negatiboari aurrea hartzeko, horiek nabarmen baldintzatuz.

Interes-arriskuarekiko esposizioa interes-tasen aldakuntzak Entitatearen Interes-Marjinan eta Balio Ekonomikoan duen eraginaren arabera kalkulatu da.

Laboral Kutxaren Kontseilu Errektoreak interes-tasaren arriskuarekiko esposizio-muga du ezarrita, eta APBren kudeaketa-esparrua da.

Arriskuaren Kontrol Globalako Departamentua arduratzen da interes-tasaren arriskuari buruzko txostenak egiteaz, ondoren APBri aurkezteko. Horrez gain, hiru hilean behin hilero aurkeztutako txostenen laburpena egiten da, APBk onartutako erabakiekin batera, Zuzendari Nagusiak Kontseilu Errektoreari deskarga diezaion.

b) Arriskua kudeatzeko funtzioaren egitura eta antolamendua.

Interes-tasaren arriskuaren kontrola eta jarraipena Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuak egiten du, eta Aktibo eta Pasiboan Batzordeari jakinarazten dio, bera baita arrisku horien kontrolaren eta kudeaketaren arduraduna.

c) Arriskuak neurtzeko eta informatzeko sistemen irismena eta izaera.

Entitateak interes-tasaren arriskua kudeatzeko aplikazio bat du, FOCUS izenekoa, eta hainbat kudeaketa-emaizta eta -informazio ematen du gainbegiralearentzat ere. Aplikazio horrek interes-tasaren arriskua kontrolatzeko erabiltzen dituen emaitzak hauek dira:

- Bitartekaritza-marjina zenbatatea, interes-tasen hainbat agertokitan. Laboral Kutxan, informazio hori funtsezkoa da; izan ere, interes-tasaren arriskua honela definitzen da: merkatuak deskontatzen dituen interes-tasen egoeratik ateratzen den bitartekaritza-marjinaren eta interes-tasa kaskarren egoeratik ateratzen den bitartekaritza-marjinaren arteko aldea. Arrisku horren muga bitartekaritza-marjinaren alde horri dagokionez ezartzen da.
- Entitatearen merkatu-balioaren aldakuntzaren zenbatespena, interes-tasen, merkatuaren eta kontrako tasen agertoki horietan.
- Balio handitzearen gapa kalkulatzeko.
- Interes-tasaren arriskuari buruzko RI egoerak (IRRBB).

d) Arriskua estaltzeko eta murrizteko politikak, eta horien eraginkortasuna modu jarraituan ikuskatzeko estrategiak eta prozesuak.



Laboral Kutxak interes-tasaren arriskuarekiko esposizioaren gehieneko muga bat du ezarrita, eta muga hori ez da gainditu behar. Ezarritako prozeduraren arabera, muga hori lortzen bada, egoera hori bideratzeko neurri egokiak hartuko dira. Gehiegizko esposizioa mantentzeko, Kontseilu Errektorearen berariazko onespena behar da.

Nolanahi ere, APBk modu proaktiboan kudeatzen du interes-tasaren arriskua, eta estaldurei buruzko erabakiak merkatuak eskaintzen dituen aukeretan eta Entitatearen Emaidza Kontuaren espektatibetan oinarrituta hartzen ditu, betiere ezarritako arriskumugen barruan, eta, aldizka, estalduren eraginkortasunaren ebaluazioak egiten dira.

Interes Tasaren Arriskuaren mugen azken eguneratzea 2023ko urtarrileko Kontseilu Errektorearen bilkuran onartu zen. Bertan, interes-tasen kurbaren desplazamenduaren inpaktu negatiboko egoerarako mugak ezarri ziren (tasa inplizituen kurbari dagokionez), Interes Marjina eragin negatiboa (12M) eta zero kupoiaren kurbaren desplazamenduaren inpaktuan.

Eragin horiek ebaluatzeko, kontuan hartuko dira gidek eta interes-tasaren arriskuaren kudeaketari buruzko araudiak ezartzen dituzten interes-tasetako zoruak.

Entitatearen berariazko kapital-koltxoa (%)	0	0
Mundu-mailako garrantzi sistemikoa duten entitateen koltxoa (%)	0	0
Koltxoi-eskakizun konbinatuak (%)	11,875	11,875
1. mailako kapital arrunta, PRESen funts propioen baldintza guztiak bete ondoren erabilgarri dagoena (mila €-tan)	1.237.369	1.069.422
Palanka-efektuaren ratioa		
Esposizio osoaren neurria (mila €-tan)	26.467.270	27.478.619
Palanka-efektuaren ratioa (%)	7,70	6,73
Gehiegizko palanka-efektuaren arriskuari aurre egiteko funts propio gehigarrien betekizunak (esposizio osoaren gaineko %)		
PRESen palanka-efektuaren ratioaren eskakizunak guztira (%)	3,0000	3,0000
Palanka-efektuaren ratioaren koltxoa eta palanka-efektuaren ratioaren baldintza globala (esposizio osoaren gaineko %)		
Palanka-efektuaren ratioaren koltxoiaren betekizuna (%)	0	0
Palanka-efektu globalaren ratioaren betekizuna (%)	3,0000	3,0000
Likidezia-estalduraren ratioa		
HQLA kalitate handiko aktibo likidoak guztira (mila €-tan)	7.788.927	8.525.229
Eskudiruaren irteerak - balio haztatua guztira (mila €-tan)	24.006.623	24.890.503
Eskudiruaren sarrerak - balio haztatua guztira (mila €-tan)	340.293	321.679
Eskudiruaren irteera garbiak guztira (balio doitua (mila €-tan)	1.757.494	2.043.154
Likidezia-estalduraren ratioa (%)	442,94	414,71
Finantzaketa egonkor garbiaren ratioa		
Finantzaketa egonkor erabilgarria guztira (mila €-tan)	22.204.223	22.866.838
Eskatutako finantzaketa egonkorra guztira (mila €-tan)	10.968.477	11.059.729
Finantzaketa egonkor garbiaren ratioa	202,44	206,76

3. taula: Funtsezko adierazleak



Hurrengo taulan, arriskuarekiko esposizioaren zenbatekoen xehetasuna eta funts propioen baldintzen kalkulua ageri dira 2023ko abenduaren 31n, arrisku-tipologiaren arabera.

Arrisku mota	ARRISKUAREKIKO esposizioaren zenbateko osoa		(mila €-tan) Funts propioen betekizunak guztira
	31/12/2023	31/12/2022	31/12/2023
Kreditu-arriskua (kontrako alderdiaren arriskua izan ezik)	7.745.746	7.608.266	619.660
eta hortik: metodo estandarrekin	7.745.746	7.608.266	619.660
Kontrako alderdiaren arriskua	53.422	64.537	4.274
eta hortik: metodo estandarrekin	53.422	64.537	4.274
Likidazio-/entrega-arriskua	0	0	0
Posizio-arriskuak, kanbio-tasa eta lehengaiak	0	0	0
Eragiketa-arriskua	751.544	640.192	60.123
eta hortik: metodo estandarrekin	751.544	640.192	60.123
GUZTIRA	8.550.712	8.312.995	684.056

4. taula: Arriskuarekiko esposizioaren guztizko zenbatekoen panoramika

- a) Kreditu-arriskuagatiko gutxienerako baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa, metodo estandarren bidez.

Laboral Kutxak metodo estandarra erabiltzen du kreditu-arriskuagatiko baliabide propioen eskakizunak ebaluatzeko, hau da, arriskuaren arabera haztatutako esposizioa % 8z biderkatzen du. Horrela, guztira 619.660 mila €-ko errekerimendua lortzen da.

- b) Kontrako alderdiaren arriskuagatiko gutxienerako baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa, metodo estandarren bidez.

Aurkako alderdiaren arriskuagatiko baliabide propioen eskakizunak, metodo estandarren bidez, arriskuaren arabera haztatutako esposizioa % 8z biderkatuta lortzen dira. Horrela, 4.274 mila €-ko errekerimendua lortzen da.

- c) Negoziazio-zorroari dagozkion likidazio-/entrega-arriskuagatiko gutxienerako baliabide propioen errekerimenduen zenbatekoa, horiek kalkulatzeko aplikatu den metodoa adierazita.

Negoziazio-zorroari lotutako likidazio-/entrega-arriskuagatiko baliabide propioen eskakizunak, metodo estandarren bidez kalkulatuak, 0 dira. €

- d) Posizio-arriskuagatiko, kanbio-tasagatiko eta lehengaiengatiko gutxienerako baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa, horiek kalkulatzeko erabilitako metodoak adierazita.

Entitateak ez du baliabide propioen eskakizunik aurkeztu arrisku-tipologia horrengatik; izan ere, 3.2.a) Arriskua kudeatzeko estrategia eta prozesuak atalean ezarritako politiken ondorioz, arrisku horrengatik eskakizunek ez dute inoiz baliabide propio konputagarri guztien % 2 gainditzen. Muga hori gainditzen ez denez, eskakizun horiek baliogabetzat jotzen dira.



e) *Eragiketa-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa, kalkulatzeko aplikatu den metodoa adierazita*

Gaur egun, metodo estandarra erabiltzen ari da eragiketa-arriskua kuantifikatzeko, eta 60.123 mila €-ko errekerimendua lortu da.

f) *Barne-kapitala egungo eta etorkizuneko jarduerak estaltzeko nahikoa den ebaluatzeko aplikatu den prozeduraren laburpena.*

Entitatea aukera sinplifikatua erabiltzen ari da barne-kapitala ebaluatzeko prozedura gisa, Espainiako Bankuak argitaratutako "Kapitalaren Autoebaluazio Prozesuaren Gidan" ezarritakoaren arabera.

Barne-kapitalaren ebaluazioa, aukera sinplifikatuaren arabera, kreditu-arriskuagatiko (posizio titulizatuaren kreditu-arriskua barne), merkatu-arriskuagatiko eta arrisku operatiboagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunak gehituz egiten da, Kapitalaren Autoebaluazio-Prozesuan kontuan hartu beharreko arrisku gehigarriez gain (kreditua kontzentratzeko arriskua, likidezia, interes-tasa eta beste arrisku batzuk).



5. Funts Propioei buruzko informazioa

a) Arauzko Funts Propioen osaera

Jarraian, 2023ko abenduaren 31ko Fondo Propioen banakapen hau aurkezten da, 6. taulan jasotako Balantze-epigrafeen kontabilitate-berdinkatzeari erreferentzia eginez.

	Zenbatekoak	6. taulako epigrafearekiko korrespondentzia
1. mailako kapital arrunta: tresnak eta erreserbak	(mila €-tan)	
1 Kapital-tresnak eta jaulkipen-primen kontuak	818.225	25
2 horietatik: 1. instrumentu mota	818.225	25
3 Metatutako beste emaitza integral bat (eta beste erreserba batzuk)	1.269.733	26+27+28+29+31
4 Modu independentean egiaztatutako behin-behineko mozkinak, balizko gastu edo dibidendu aurreikusgarririk gabe	129.459	32-33
5 1. mailako kapital arrunta arauzko doikuntzen aurretik	2.217.417	
1. mailako kapital arrunta: arauzko doikuntzak	(mila €-tan)	
6 Aktibo ukiezinak (zerga-zorrik gabe). (zenbateko negatiboa)	-31.620	8-23
7 Etorkizuneko etekinen mende dauden zerga geroratuen ondoriozko aktiboak, aldi baterako diferentzietatik eratorritakoak izan ezik (zergen ondoriozko pasiboak kenduta, RRCren 38. artikuluko 3. atalean ezarritako baldintzak betetzen direnean) (zenbateko negatiboa)	-38.314	14
8 Entitate batek 1. mailako kapital arrunteko tresna propioak zuzenean, zeharka eta sintetikoki edukitzea (zenbateko negatiboa)	-15	30
9 Finantza-sektoreko erakundeen 1. mailako kapital arrunteko tresnen edukitze zuzenak, zeharkakoak eta sintetikoak, entitate horiek entitatearekin elkarrekin edukitzea dutenean, erakundearen funts propioak artifizialki handitzeko (zenbateko negatiboa)	-2.850	9
10 Balioztapenagatiko doikuntzak	-103.147	27
11 Balorazio zuhurraren ondoriozko eskakizunen ondoriozko balio-doikuntzak	-718	
12 Zalantza-zko esposizioen estaldura nahikoa ez izatea	-1.756	
13 1. mailako kapital arruntaren arauzko doikuntzak guztira	-178.420	
14 1. mailako kapital arrunta	2.038.997	
1. mailako kapital gehigarria: tresnak	(mila €-tan)	
1. mailako kapital gehigarria: arauzko doikuntzak	(mila €-tan)	
2. mailako kapitala: tresnak	(mila €-tan)	
15 2. mailako kapitala arauzko doikuntzen aurretik	0	
2. mailako kapitala: arauzko doikuntzak	(mila €-tan)	
16 2. mailako kapitala	0	
17 KAPITALA GUZTIRA (Kapitala guztira = 1. mailako kapitala + 2. mailako kapitala)	2.038.997	
Ratioak eta kapital-eskakizunak, koltxoiak barne	%	
18 1. mailako kapital arrunta	23,85	
19 1. mailako kapitala	23,85	
20 Kapitala guztira	23,85	
21 Entitatearen 1. mailako kapital arruntaren betekizun orokorrak	7,03	
22 Horietatik: kapitalari eusteko koltxoiari buruzko betekizuna	2,50	
23 1. mailako kapital arrunt erabilgarria, gutxieneko kapital-baldintzak bete ondoren (arrikuarekiko esposizioaren zenbatekoaren chunekoan)	16,82	
Dedukzio-atalaseen azpiko zenbatekoak (arriksua haztatu aurretik)	(mila €-tan)	
24 Finantza-sektoreko erakundeen fondo propio eta pasibo onargarriak zuzenean eta zeharka edukitzea, entitateak erakunde horietan inbertsio esanguratsurik ez duenean (% 10eko atalasea baino zenbateko txikiagoa eta posizio labur onargarriak kenduta)	10.888	
25 Finantza-sektoreko erakundeen 1. mailako kapital arrunteko tresnen zuzeneko eta zeharkako edukitzeak, entitateak inbertsio esanguratsua duenean erakunde horietan (% 17,65eko atalasea baino zenbateko txikiagoa eta posizio labur onargarriak kenduta).	129.243	
26 Aldi baterako aldean ondoriozko zerga geroratuen ondoriozko aktiboak (% 17,65eko atalasetik beherako zenbatekoa, zerga lotuen ondoriozko pasiboak kenduta, betiere RRCren 38. artikuluko 3. atalean ezarritako baldintzak betetzen badira).	41.923	
Hornidurak 2. mailako kapitalean sartzeari dagokionez aplikatu beharreko mugak	(mila €-tan)	
27 2. mailako kapitalean sartutako kreditu-arrikuagatiko doikuntzak, metodo estandarri lotutako esposizioei dagokienez (muga aplikatu aurretik)	0	
28 2. mailako kapitalean sartutako kreditu-arrikuagatiko doikuntzak, bame-kalifikazioetan oinarritutako metodoari lotutako esposizioei dagokienez (muga aplikatu aurretik)	0	

5. taula: Arauzko Funts Propioen osaera



b) Arauzko funts propioak balantzearekin bateratzea ikuskatutako finantza-egoeretan

Taula honetan, 2023/12/31n Entitateak duen Balantzeari buruzko informazioa ageri da.

ARAUZKO FUNTS PROPIOEN KONTZILIAZIOA BALANTZEAREKIN IKUSKATUTAKO FINANTZETAKO EGOERA-ORRIETAN				
		Balantzea Argitaratutako Finantzetako Egoera-orrien arabera	Konsolidazio Erregelamendu Eremuaren arabera	Erref.: 5. taula
	AKTIBOA	(mila €-tan)	(mila €-tan)	
1	Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk	1.417.707	1.398.014	
2	Negoiazteko mantendutako finantza-aktiboak	8.038	8.038	
3	Negoiaziora bideratu gabeko aktibo finantzarioak, emaitzetan aldaketak dituzten eta nahitaez arrazoizko balioan baloratutako	12.391	9.994	
4	Arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioak, beste emaitza global batean aldaketak	996.268	525.539	
5	Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak	23.381.618	23.312.234	
6	Deribatutak - estalduren kontabilitatea	57.411	57.411	
7	Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak	381	174.311	
8	horietatik: Merkataritza Funtsa		33.425	6
9	horietatik: 1. mailako kapital arruntean elkarrekiko edukitzeak		2.850	9
10	Aseguru- edo berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak	25.011		
11	Aktibo ukigarriak	393.005	371.116	
12	Aktibo ukiezinak	33.559	0	
13	Zergen ondoriozko aktiboak	165.956	151.573	
14	horietatik: Egiteke dauden kenkariak	38.314	38.314	7
15	Beste aktibo batzuk	74.351	73.892	
16	Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korrenteak eta elementu-talde besterengarriak	23.795	23.795	
	AKTIBOA GUZTIRA	26.589.491	26.105.917	
	PASIBOA	(mila €-tan)	(mila €-tan)	
17	Negoiazteko mantendutako pasibo finantzarioak	2.177	2.177	
18	Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak	23.034.073	23.044.101	
19	Deribatutak - estalduren kontabilitatea	434.648	434.648	
20	Aseguru- edo berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak	475.544		
21	Hornidurak	153.794	152.055	
22	Zergengatiko pasiboak	112.577	96.800	
23	Horietatik: Merkataritza Funtzari lotutako zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak		1.805	6
24	Beste pasibo batzuk	82.488	79.216	
	PASIBOA GUZTIRA	24.295.301	23.808.997	
	ONDARE GARBIA	(mila €-tan)	(mila €-tan)	
25	Kapitala	818.761	818.761	1
26	Metatutako beste emaitza global bat - Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak	29.493	29.493	3
27	Metatutako beste emaitza global bat - Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak - Estalduratik datozenak. Diru-fluxuen estaldura-erreserba [zati eraginkorra]	103.147	103.147	3
28	Metatutako beste emaitza globala - Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak - Arrazoizko balioan balioztatutako zor-tresnen arrazoizko balioaren aldaketak, beste emaitza global batean aldaketak eginez	35.197	20.333	3
29	Metatutako beste emaitza globala - Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak - Mendeko, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan aitortutako beste diru-sarrerara eta gastu batzuetan parte hartzea	116	14.861	3
30	(-) Norberaren ekintzak	-2.864	-15	8
31	Beste erreserba batzuk	1.101.896	1.101.896	3
32	Dominatzaileen jabecei egotz dakizkiekeen emaitzak	208.444	208.444	4
33	hortik: Ekitaldia itxeko mozkin ez onargarriaren zatia		78.985	4
	ONDARE GARBIA GUZTIRA	2.294.190	2.296.920	

6. taula: Arauzko Funtz Propioak balantzearekin berdinkatzea ikuskatutako finantzetako egoera-orrietan



c) *1. mailako kapital arruntaren, 1. mailako kapital gehigarriaren eta 2. mailako kapitalaren tresna guztien terminoak eta baldintzak.*

1. mailako kapital arrunta (CET1) honela dago osatuta:

- Kapital soziala: 818.210 mila €
- Eraitza onargarriak: 129.459 mila €
- Erreserbak: 1.101.896 mila €
- Balioztapenagatiko doikuntzak: 167.837 mila €

Ez dago 1. mailako kapital-tresna gehigarriarik, ezta 2. mailako kapital-tresnarik ere.

Entitatearen kapital soziala 818.210 mila €-koa da, eta lan-bazkideek, bazkide laguntzaileek eta Kooperatiba Elkartuek egindako eta ordaindutako ekarpenek osatzen dute. Entitate Nagusiaren Estatutu Sozialen arabera, bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoak ezin izango du kapital sozialaren % 20 gainditu, pertsona juridikoa denean, eta kapital sozialaren % 2,5, pertsona fisikoa denean. 2023ko abenduaren 31n, zuzenean edo zeharka Entitatearen kapital sozialaren % 10eko edo gehiagoko partaidetza duen entitate bakarra Lagun-Aro da, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitatea, % 14,88 duena (% 15,02 2022an).

Ekitaldi bakoitzerako, Batzar Nagusiak, Kontseilu Errektoreak proposatuta, ekarpen horiei aplikatu dakiekeen konturako ordainsaria onartzen du. Ordainketa hori, Kreditu Kooperatiben Legearen Araudiaren arabera, ezin izango da diruaren legezko interes-tasa baino sei puntu handiagoa izan. 2023ko eta 2022ko ekitaldietan kapital sozialari egindako ekarpenen tasa % 7koa eta urteko % 4,5ekoa izan da, hurrenez hurren, eta Batzar Nagusian onartzeko dago 2023ko ekitaldiari dagokion % 7.

d) *Zuhurtziazko iragazkien, egindako kenkarien eta kendu gabeko elementuen izaera eta zenbatekoa*

Ikus a) atala.

e) *Erregelamendu honen arabera funts propioak kalkulatzeko aplikatutako murrizketen deskribapena, eta murrizketa horiek aplikatzen zaizkien tresnak, zuhurtziazko iragazkiak eta kenkariak.*

Ikus a) atala.



6. Zikloen aurkako Kapitalaren Koltxoia

Zikloen aurkako kapitalaren koltxoia makrozuhurtziazko tresna bat da, banku-sistemaren kaudimena indartzeko diseinaturia, kapitala oparotasun ekonomikoko faseetan metatuz — orduan metatzen baitira arrisku sistemikoak —, ondoren erabili ahal izateko finantza-egonkortasunari eragin diezaioketen arriskuak gauzatzen direnean.

Entitatearen araberrako zikloen aurkako kapitalaren koltxoi espezifikoen ehuneko entitatearen kreditu-esposizio egokiak dauden lurraldeetan aplikatzen diren zikloen aurkako koltxoen ehunekoen batez besteko haztatua izango da, edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/36/EB Zuzentarauaren 139. artikuluko 2. edo 3. ataletan xedatutakoaren arabera aplikatzen diren koltxoen ehunekoen batez bestekoa.

Aurreko lerrokan aipatutako batez besteko haztatua kalkulatzeko aldera, Estatu Kideek zikloen aurkako koltxoiaren ehuneko bakoitzari kreditu-arriskuagatik funts propioen betekizunaren zenbateko osoa aplikatzea eskatuko diote entitateei. Zenbateko hori 575/2013 (EB) Erregelamenduaren hirugarren zatiko II. eta IV. tituluen arabera zehaztuko da, eta kasuan kasuko lurraldeko kreditu-esposizioei dagokie. Zenbateko hori zati kreditu-arriskuagatik funts propioen betekizunaren zenbateko osoa egingo da, kasuan kasuko kreditu-esposizio guztiei dagokienez.

Entitatearen zikloen aurkako kapitalaren koltxoi espezifikoa 0 da.

575/2013 (EB) Erregelamenduaren 440. artikulua betetzeko, jarraian, zikloen aurkako kapitalaren koltxoia kalkulatzeko kreditu-esposizioen banaketa geografikoa aurkezten da:

Estatu araberako baina	Kreditu-esposizioak orokorrak (mila €-tan)	Kreditu-esposizio egokiak – Merkatu-arriskua (mila €-tan)	Titulazio-esposizioak – Inbertsio-zorrorako esposizio-halioa (mila €-tan)	Esposizioaren balio osoa (mila €-tan)	Funts Propioen betekizunak				Arriskuaren arabera haztatutako esposizioen zenbatekoak (mila €-tan)	Funts propioen eskakizunaren haztapenak (%)	Zikloen aurkako kapitalaren koltxoen ehunekoak (%)
					Kreditu-esposizio egokiak – Merkatu-arriskua (mila €-tan)	Kreditu-esposizio egokiak – Merkatu-arriskua (mila €-tan)	Kreditu-esposizio egokiak – Banku-zorroraren titulazio-esposizioak (mila €-tan)	GUZTIRA A (mila €-tan)			
Kanada	744	0	0	744	60	0	0	60	0	0,01	
Suitza	2.936	0	0	2.936	216	0	0	216	1	0,04	0,00
Alemania	10.528	0	0	10.528	557	0	0	557	11	0,10	0,75
Espania	13.832.302	0	0	13.832.302	537.120	0	0	537.120	13.555.890	98,00	0,00
Frantzia	13.369	0	0	13.369	790	0	0	790	19	0,14	0,50
Eresuma Batua	5.136	0	0	5.136	418	0	0	418	4	0,08	2,00
Guemsey	8.848	0	0	8.848	1.062	0	0	1.062	17	0,19	
Irlanda	4.356	0	0	4.356	410	0	0	410	3	0,07	1,00
Italia	3.891	0	0	3.891	199	0	0	199	1	0,04	0,00
Luxemburgo	53.017	0	0	53.017	6.321	0	0	6.321	611	1,15	0,50
Herbehereak	1.913	0	0	1.913	101	0	0	101	0	0,02	1,00
Portugal	1.492	0	0	1.492	96	0	0	96	0	0,02	0,00
Suedia	510	0	0	510	40	0	0	40	0	0,01	2,00
Estatu Batuak	7.396	0	0	7.396	530	0	0	530	7	0,10	0,00
GUZTIRA	13.946.439	0	0	13.946.439	547.921	0	0	547.921	13.556.566	100	8

7. taula: Zikloen aurkako kapitalaren koltxoia kalkulatzeko kreditu-esposizio egokiaren banaketa geografikoa



7. Palanka-efektuaren ratioa

Palanka-efektuaren ratioa 1. mailako kapitalaren eta esposizio osoaren arteko erlazioa jasotzen duen neurri erregulatzaileria da.

Palanka-efektuaren ratioa kalkulatzeko arauak eta informazio-eskakizunak Erregelamenduaren 429. artikuluan zehazten dira, eta han % 3ko erreferentzia-maila ezartzen da.

2018an 1. mailako kapitalaren definizioaren prozesu iragankorra osatu zen, eta, beraz, une horretatik aurrera "Fully-Loaded" informazioa izango da tauletan aurkeztuko dena.

Lehenik eta behin, Palanka-efektuaren Ratioaren kalkuluan esku hartzen duten aktiboaren kontabilitateko berdinkatzea aurkezten da:

Kontabilitate-Aktiboak eta Esposizioak	Zenbateko egokia (mila €-tan)
Guztizko aktiboak, argitaratutako finantzetako egoera-orrien arabera	26.589.491
Kontabilitate-ondorioetarako finkatzen diren baina zuhurtziazko kontsolidazioaren eremutik kanpo geratzen diren erakundearen arabeko doikuntza	0
Finantza-tresna deribatuengatik doikuntzak	46.720
Balantzetik kanpoko partiden arabeko doikuntza (hau da, balantzetik kanpoko esposizioak kreditu-baliokide bihurtzea)	622.841
Beste doikuntza batzuk	-791.782
Esposizio osoaren neurria	26.467.270

8. taula: Palanka-efektuaren Ratioari dagozkion kontabilitate-aktiboaren eta esposizioaren kontziliazioa

Jarraian, Palanka-efektuaren Ratioari dagozkion esposizioaren kalkulua aurkezten da.



RRC palanka-efektuaren ratioari dagozkion esposizioak		
Balantze barruko esposizioak (deribatua eta baloreak finantzatzeko eragiketak alde batera utzita)	31/12/2023	31/12/2022
Balantzearen barruko partidak (deribatua eta baloreak finantzatzeko eragiketak kenduta, baina berme errealak barne)	25.863.791	26.862.588
1. mailako kapitala zehazteko kendutako aktiboen zenbatekoak	-72.784	-67.802
Balantzeko Esposizioak guztira (deribatua eta baloreak finantzatzeko eragiketak izan ezik)	25.791.007	26.794.786
Deribatuekiko esposizioak (mila €-tan)		
Deribatuetako eragiketa guztiei lotutako birjarpen-kostua, kontrako alderdiaren arriskurako metodo estandarren arabera (hau da, eskudirutan egindako aldakuntza-marjina onargarria kenduta)	6.702	4.952
Deribatuetako eragiketei lotutako etorkizuneko esposizio potentzialagatik gehiuntzen zenbatekoa, kontrako alderdiaren kreditu-arriskurako metodo estandarren arabera	46.720	59.584
Kreditu-deribatuekiko esposizioak guztira	53.422	64.536
Baloreak finantzatzeko eragiketekiko esposizioa (mila €-tan)		
Kontrako alderdiaren kreditu-arriskuarekiko esposizioa, baloreak finantzatzeko eragiketen aktiboengatik	0	0
Baloreak finantzatzeko eragiketekiko esposizioak guztira	0	0
Balantzetik kanpoko beste esposizio batzuk (mila €-tan)		
Balantzetik kanpoko esposizioak, zenbateko nozional gordinaren arabera baloratuta	1.481.373	1.410.769
Kreditu-baliokideetara bihurtzeagatik doikuntzak	-858.532	-791.472
Balantzetik kanpoko esposizioak	622.841	619.297
Esposizio osoaren kapital eta erdia (mila €-tan)		
1. mailako kapitala	2.038.998	1.848.765
Esposizio osoaren neurria	26.467.270	27.478.619
Palanka-efektuaren ratioa (%)		
Palanka-efektuaren ratioa	7,70%	6,73%
Xedapen iragankorrak eta bidezko esposizioak hautatzea		
Kapitalaren neurria definitzeko xedapen iragankorrak hautatzea	Erabateko integrazioa	Erabateko integrazioa

9. taula: Palanka-efektuaren Ratioaren Dibulgazio-taula komuna

Azkenik, "Esposizioak Balantzearen barruan" epigrafea honela banakatuko da:



Balantze barruko esposizioen banakapena	RRC palanka-efektuaren ratioari dagozkion esposizioak (mila €-tan)
Balantzearen barruko esposizioak guztira (deribatuak, baloreak finantzatzeko eragiketak eta kanpo utzitako esposizioak izan ezik); horietatik:	25.791.007
Negoiazio-zorroko esposizioak	0
Inbertsio-zorroaren esposizioak; horietatik:	25.791.007
Bonu bermatuak	0
Esposizioekin parekatutako esposizioak	8.387.310
Eskualdeetako administrazioen, garapeneko banku aldeaniztunen, nazioarteko erakundeen eta sektore publikoko erakundeen aurrean izandako esposizioak	2.128.633
Entitateak	451.736
Ondasun higiezin gaineko hipotekez bermatutakoak	9.759.760
Txikizkako esposizioak	2.462.229
Enpresak	1.198.430
Ez-ordaintzetako esposizioak	246.311
Beste esposizio batzuk	1.156.598

10. taula: Balantze barruko Esposizioen banakapena

Ikus daitekeenez, entitateak palanka-efektuko ratioak eskatutako minimotik gorakoak dira.

Arriskuarekiko Grinaren Esparruan, palanka-efektuaren ratioa lehen mailako adierazletako bat da, eta horrek bermatzen du gobernu- eta zuzendaritza-organoei monitorizatzea, eta palanka-efektuaren gehiegizko arriskua kudeatzea ahalbidetzen du.



8. Likidezia-betekizunak

8.1. Eskakizun orokorrak

Likidezia-arriskuaren bi definizio bereizten dira:

Funtsen likidezia-arriskua: Entitate Nagusia egungo eta etorkizuneko aurreikusitako eta ustekabeko kutxa-fluxuei eta ordainketa-betebeharren ondoriozko berme-ekarpenei eraginkortasunez aurre egiteko gai ez izateko arriskua da, eguneroko eragiketak edo finantza-egoerak eraginik izan gabe.

Merkatu-likideziaren arriskua: finantza-Entitate Nagusi batek merkatuko prezioetan posizio bat erraz konpentsatu edo desegin ezin izateko arriskua da, merkatuan sakonera eskasa edo distortsioak daudelako.

Entitate Nagusiak helburu estrategikotzat jo du beti likidezia, eta kudeaketa eta kontrol sistematikoari eutsi dio azken bi hamarkadetan. Testuinguru horretan, Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok Likidezia Arriskuari buruzko Politiken eta Prozeduren Eskuliburua du, Kontseilu Errektoreak onartua. Eskuliburu horrek Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordearen "Likidezia arriskua egoki kudeatzeko eta gainbegiratzeko printzipioak" (2008ko iraileko dokumentua) hartzen ditu kontuan, eta hainbat likidezia-helburu eta kontingentzia-plan bat ezartzen ditu. Plan horrek alerta-mailak eta jarduera-protokoloak biltzen ditu. Testuinguru horretan, Entitate Nagusiak, alde batetik, Arriskuarekiko Grinaren Esparrua garatu zuen 2015ean. Esparru hori baimentzeko eta hobetzeko prozesu sistematiko baten xede da, eta likidezia-arriskuaren funtsezko adierazle jakin batzuetarako tolerantzia-atalaseak jasotzen ditu. Bestetik, Recovery Plana egin zuen, likidezia-krisiko egoerei buruzko alerta-mailak eta jarduera-protokoloak eguneratzeko.

Prozeduretan ezarritako zereginetan sakonduz, likideziaren kudeaketa kontrol-sistema batean oinarritzen da. Sistema horrek, alde batetik, mugak ezartzen dizkie funtsezko adierazle jakin batzuei, eta bestetik, muga eta helburu horien betetze-mailaren jarraipen sistematikoa egiten du. Muga eta helburu horiek hileroko eguneratutako finantzaketa-plan bat eginez kontrolatzen dira. Plan horretan, baliabide inbertigarrien, kreditu-inbertsioaren eta handizkako finantzaketaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak jasotzen dira, eta horiek mugen eta helburuen xede diren adierazleen bilakaera zehazten dute. Horri esker, APBk etengabe eguneratutako informazioa izango du aipatutako adierazleen eta, oro har, likideziaren bilakaerari buruz, epe ertainera begira. Horri esker, APBk behar besteko aurrerapenaz ezar ditzake likidezian eragiten duten agregatuen bilakaeran egon daitezkeen desorekak zuzentzeko ekintza egokiak. Likidezia-helburuen artean, Aktibo likido erabilgarriak eta hainbat likidezia-ratio daude. Horien artean, LCR dago. 2023ko itxieran, Entitate Nagusian oso maila handiak lortu zituen, eta aise estali zuen arautzaileak 2018ko urtarrilaren 1erako ezarritako muga.

Zehazki, 2023. urtearen amaieran, Entitate Nagusiak honako hauek ditu:

- LCR ratioa % 439koa da.



- 6.472 milioi euroko aktibo likido deskontagarriak (eta erabilgarriak) Europako Banku Zentralean (EBZ), haircutak aplikatu ondoren, ustekabeko kontingentziei aurre egiteko. Zenbateko horretatik, 2.676 milioi euro Europako Banku Zentralaren polizan daude eskuragarri, eta 3.796 milioi euro Europako Banku Zentralaren aktibo hautagarriak dira, pignorazioaren bidez erabil daitezkeenak. Entitate Nagusiak likidezia-maila garbi positiboari eutsi die urtean zehar.
- Espainiako Bankuaren kontu korrontean 1.261 milioi euroko saldoa dago, eta horietatik 218,8 kutxa-koefizienteari dagozkio.
- Loan to Deposits bat, % 66,3-koa da.
- Handizkako Finantzaketa horretan, Entitate Nagusiak politika zuhurra jarraitu du:
- 180 milioi euro, 2024ko ekaineko muga-egunarekin, EBZtik (TLTRO) hartuak, balantze osoaren % 1.

Ondorioz, finantzaketa-gaitasunek asko estaltzen dituzte epe ertaineko likidezia-beharrak. Hona hemen likidezia-estalduraren ratioaren informazio kuantitatiboa.

	31/12/2023	31/12/2023
	Erreferentzia-dataren datuak	Urteko batez bestekoa
Kalitate handiko aktibo likidoak (mila €-tan)		
Kalitate handiko aktibo likidoak guztira (HQLA)	7.788.927	7.257.866
Eskudiruaren irteerak (mila €-tan)		
Txikizkako gordailuak eta enpresa txikien gordailuak; horietatik,	19.992.403	20.064.193
Handizkako finantzaketa bermatu gabe	1.656.131	1.586.356
Betekizun gehigarriak	338.531	339.987
Finantzaketaren arloko kontratuzko beste betebeharrak	1.319.492	1.322.630
Finantzaketaren arloko beste betebeharrak kontingente batzuk	700.066	725.982
Eskudiruaren Irteerak guztira	24.006.623	24.039.149
Eskudiru-sarrerak (mila €-tan)		
Mailegu bermatuak	0	0
Erabat egindako esposizioen sarrerak	340.293	348.788
Eskudiruzko beste sarrera batzuk	0	0
Eskudiruzko Sarrerak guztira	340.293	348.788
Guztizko Balio Doitua		
Likidezia-koltxoia (mila €-tan)	7.784.647	7.243.300
Eskudiru-Irteera Garbiak guztira (mila €-tan)	1.757.494	1.825.750
Likidezia-Estalduraren ratioa	443	397

11. taula: Likidezia-estalduraren ratioaren informazio kuantitatiboa



9. Kreditu-Arriskuei buruzko informazioa

9.1. Kreditu-arriskuarekiko eta diluzio-arriskuarekiko esposizioa

9.1.1. Kreditu-arriskua.

a) "Berandutuko" eta "narriatutako" posizioen definizioak, kontabilitate-ondorioetarako.

2020ko abenduaren 31n, Entitatean erabilitako berankortasunaren definizioa honako hau da: 4/2017 Zirkularra, azaroaren 27koa, kreditu-erakundeena, finantza-informazio publiko eta erreserbatuaren arauari eta finantza-egoeren ereduari buruzkoa, eta 1/2013 Zirkularra, maiatzaren 24koa, Arriskuen Informaziorako Zentralari buruzkoa: Zirkular horren helburua 4/2004 Zirkularra eguneratzea izan zen, batez ere IX. eranskina, banku-araudiaren azken garapenetara egokitzeko, FINA arauen kontabilitate-esparruarekiko bateragarritasunari eutsiz..

Zalantzazko arriskua titularren berankortasunagatik. *Kategoria honetan sartzen dira zorraren tresnak, horien titularra eta bermea den edozein, baldin eta 90 egun baino gehiagoko antzinatasuna badute eta kontratuaren arabera itundutako printzipalaren, interesen edo gastuen zenbatekoren bat mugaeguneratuta badute, kobraezintzat sailkatu behar direnean izan ezik. Kategoria honetan sartuko dira, halaber, emandako bermeak, abalatuak bermatutako eragiketan berankortasuna izan badu.*

Kategoria honetan, titular baten eragiketa guztien zenbatekoak sartuko dira, 90 egunetik gorako antzinatasunarekin mugaeguneratutako zenbatekoak dituzten eragiketak kobratzeko dauden zenbatekoen % 20tik gorakoak direnean. Adierazitako ehunekoa zehazteko, zenbakitzailean kontuan hartuko dira berankortasunaren ondoriozko zalantzazko eragiketen liburuetaiko zenbateko gordina, mugaeguneratutako zenbatekoekin, eta izendatzailean, titularrari emandako zor-tresna guztien liburuetaiko zenbateko gordina. Horrela kalkulaturako ehunekoa % 20tik gorakoa bada, berankortasunaren ondoriozko zalantzazkoetara pasatuko dira bai zor-tresnak, bai titular horren kreditu-arriskua dakarten balantzetik kanpoko esposizioak.

Aktibo narriatuak. *Aktibo narriatutzat hartzen dira zor-tresnak, bai eta arrisku eta konpromiso kontingenteak ere, narriadura-ebidentzia objektiboak dituztenak. Funtsean, honako hauei egiten diete erreferentzia: ordaindugabeak, ez-betetzeak, birfinantzaketak eta hitzartutako etorkizuneko fluxu guztiak ez berreskuratzeko aukera ematen duten datuak egotea, edo, kapital-tresnak direnean, liburuetaiko balioa osorik ez berreskuratzea.*

b) *Kreditu-arrisku orokor eta espezifikoagatiko doikuntzak zehazteko aplikatutako planteamenduak eta metodoak deskribatzea*

Arrisku eta konpromiso kontingenteengatiko hornidurak Entitateak hirugarren baten betebeharrak bermatzen dituen eragiketetarako hornidura gisa zuzkitutako zenbatekoak dira, emandako finantza-bermeen edo antzekoen ondorioz sortutakoak, bai eta konpromiso kontingenteen ondorioz sortutakoak ere. Zenbateko horiek zehazteko metodoa Espainiako Bankuak 4/2017 EBZn zehaztutakoa da.



Taldeak jarraian deskribatutako irizpideak aplikatzen ditu kreditu-arriskuagatiko galeren estaldurak kalkulatzeko.

Arrisku nabarmenik gabe identifikatutako eragiketei dagokienez (batez ere banku zentralekin, administrazio eta enpresa publikoekin eta finantza-erakundeekin egindakoak, guztiak Europar Batasunekoak edo arriskurik gabeko zenbait herrialdeetakoak), % 0ko estaldura-ehunekoa aplikatzen zaie, zalantzazkotzat sailkatutako eragiketen kasuan izan ezik, horietan narriaduraren banakako balioespena egiten baita.

1) Estalduren banakako zenbatespenak:

Banaka zenbatesten dira:

- i) Banaka esanguratsuak diren akreditatuen zalantzazko eta zaintza bereziko eragiketen estaldurak. Taldeak 3 milioi euroko muga ezarri du arriskuaren esposizio osoari dagokionez, kreditatuak esanguratsutzat hartzeko.*
- ii) Arrisku-talde homogeneo batekoak ez diren zalantzazko eragiketen estaldurak.*
- iii) Zalantzazkotzat sailkatutako arriskurik gabekotzat jotako eragiketen estaldurak, berankortasunagatik zein berankortasunaz bestelako arrazoiengatik.*

Estaldura horien zenbatespena kalkulatzeko, irizpide jakin batzuk erabiltzen dira, eta horien arabera, analistek dagokion hornidura-maila esleitzen dute, bezeroaren egoera zehatzaren eta eragiketaren arabera, honako hauek oinarri hartuta:

- i) Kutxa-fluxuak sortzea: zordunentzat etorkizuneko kutxa-fluxuak sortzeko gaitasuna estimatzen da, negozioa bera garatuz, eta, kreditatuaren jarduera eta egitura ekonomiko-finantzarioa garatuz, hartutako zorraren zati bat edo zor osoa itzultzeko aukera ematen du.*
- ii) Bermeak berreskuratzea: beren negozioaren garapenarekin kutxa-fluxuak sortzeko gaitasunik ez duten zordunak, bermeen exekuzioaren bidez zorraren berreskurapena kalkulatz.*

Era berean, banakako zenbatespen gisa hartu beharreko gutxieneko estaldurak zalantzazko arriskueterako zenbatespen kolektiboko irizpideak erabiliz aplikatzekoak direnak izango dira, edo, sektore sustatzailearen eragiketen kasuan, otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan zehaztutako irizpideen arabera aplikatzekoak direnak.

2) Estalduren zenbatespen kolektiboak:

Taldeka zenbatesten dira:



i) Arrisku normaltzat sailkatutako esposizioak (zaintza berezian sailkatutakoak barne), zaintza berezian normaltzat sailkatutako esposizioak izan ezik, baldin eta, Taldearen politiken arabera, banaka balioesten badira.

Adierazgarritasun-atalasea gainditzen ez duten eta, gainera, zalantzazkotzat sailkatu ez diren egiaztatuen kasuan, Taldeak parametro batzuk ezarri ditu. Parametro horiek gainditu ondoren, automatikoki sailkatzen dira zaintza bereziko arrisku normal gisa (irizpide orokor gisa, 30 egunetik gorako eta 90 egunetik beherako ez-ordaintzeak, 300 eurotik gorako epemugekin).

ii) Zalantzazkotzat sailkatutako esposizioak, estalduren banakako estimazioaren bidez ebaluatzen ez direnak.

Narriadura zenbatesteko prozesuak kreditu-esposizio guztiak hartzen ditu kontuan, bai zor-tresnak, bai balantzetik kanpoko esposizioak. Ildo horretan, indarrean dauden FINA arauak ezarritako parametroak eta metodologia erabili ditu Taldeak, espero den galera-metodologiarekin, bai eta indarreko gainerako tokiko araudia ere. Izan ere, Taldeak bere bezeroekin dituen balantze-esposizioen eta balantzetik kanpoko esposizioen narriadura sailkatzeko eta kalkulatzeko aplikatzen dira, Espainiako banku-sektoreko erakundeen batez besteko portaera gehitzen duten eta FINA arauak osatutako esparruarekiko bateragarritasun osoa babesten duten datu eta eredu estatistikoetan oinarrituta. Metodologia horrek kontuan hartzen ditu, besteak beste, eragiketaren kreditu-arriskuaren segmentua, jasotako berme erreal eta pertsonal eraginkorrak, zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa eta, hala badagokio, mugaeguneratutako zenbatekoen antzintasuna.

Kreditu-arriskuagatiko galeren estalduren zenbatespenetan, higiezin bermeetatik berreskuratu beharreko zenbatekoa haien erreferentziazko balioa doitzearen emaitza izango da. Horretarako, beharrezko doikuntzak egingo dira, ziurgabetasuna behar bezala jasotzeko zenbatespenean eta hura egikaritu eta saldu arte izan ditzakeen balio-jaitsieretan, bai eta gauzatze-kostuak, mantentze-kostuak eta salmenta-kostuak ere.

Berme erreal eraginkorretatik berreskuratu beharreko zenbatekoa zehazteko, Taldeak bere esperientzian eta Espainiako banku-sektoreko informazioan oinarrituta kalkulaturako deskontuak aplikatuko ditu bere erreferentzia-balioan, FINA arauak eta indarrean dagoen gainerako lege-araudiak eskatutako metodologiaren arabera.

c) *Esposizioen banaketa geografikoa, kokapen geografikoaren arabera banakatuta.*

Jarraian, 2023ko abenduaren 31ko kreditu-inbertsioaren xehetasuna azalduko dugu, Laboral Kutxaren urteko kontu indibidualen arabera, jarduera-sektorearen eta eremu geografikoaren arabera:

KREDITU-INBERTSIOAREN KATEGORIA	GUZTIRA Kontabilitate-balio garbia (mila €-tan)	EAE (mila €-tan)	Nafarroa (mila €-tan)	Madrid (mila €-tan)	Gainerakoak (mila €-tan)
Kreditu-erakundeak	1.871.053	54.146	0	1.597.771	219.136
Administrazio publikoak	8.616.921	476.172	108.860	210.711	7.821.178
- Admin. Zentrala	7.307.279	0	0	0	7.307.279
- Gainerakoak	1.309.642	476.172	108.860	210.711	513.899
Beste finantza-erakunde batzuk	145.060	38.091	1.068	94.375	11.526
Sozietate ez-finantzarioak eta banako enpresariak	3.124.358	1.718.776	281.677	448.485	675.420
- Eraikuntza eta higiezinaren sustapena	43.920	35.217	2.169	0	6.534
- Obra zibila eraikitzea	148.830	106.919	6.324	19.615	15.972
- Gainerako helburuak	2.931.608	1.576.641	273.184	428.870	652.913
Enpresa handiak	831.587	457.891	64.018	163.904	145.774
ETEak eta banako enpresariak	2.100.021	1.118.750	209.166	264.966	507.139
Gainerako etxeak eta ISFLSH	10.898.230	5.887.475	1.202.564	919.186	2.889.005
- Etxebizitzak	10.051.315	5.296.745	1.114.614	901.038	2.738.918
- Kontsumoa	486.855	297.358	62.158	11.438	115.901
- Beste helburu batzuk	360.060	293.372	25.792	6.710	34.186
GUZTIRA	24.655.622	8.174.660	1.594.169	3.270.528	11.616.265

12. taula: Kreditu-inbertsioaren banaketa geografikoa

d) *Esposizioen banaketa geografikoa, jarduera-sektoreen arabera*

Bezeroei emandako kredituaren zenbatekoaren ehunekoa erakusten da, jarduera-sektoreen arabera. Bertan, Laboral Kutxak sektore ekonomikoetan duen kreditu-jardueraren kontzentrazio-maila ikus daiteke:

JARDUERA EKONOMIKO KO SEKTORAK	%
Espainiako Administrazio Publikoak	6,48%
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza eta arrantza	0,41%
Industriak	5,82%
Eraikuntza	1,54%
Merkataritza eta ostalaritza	4,63%
Garraioak eta komunikazioak	1,58%
Beste zerbitzu batzuk	4,88%
Partikularrentzako kreditua:	72,96%
Sailkatu gabe	1,56%
Balioztapenagatiko doikuntzak	-1,65%
Beste sektore ez-egoiliar batzuk	0,85%
Gainerako aktiboak	0,94%
GUZTIRA	100,00%

13. taula: Bezeroei emandako kredituaren ehunekoaren xehetasuna, jarduera-sektoreen arabera

9.1.2. Kontrako alderdiaren arriskua

a) *Barne-kapitala esleitzeko eta kontrako alderdiaren arriskupeko esposizioei mugak ezartzeko erabilitako metodologia deskribatzea.*

Talde Bateratuak aukera sinplea erabiltzen du alderdi kontrarioaren arriskurako barne-kapitala esleitzeko prozedura gisa, eta horrek esan nahi du ez dagoela alderik arrisku horrengatik gutxieneko baliabide propioen eskakizunen eta barnean esleitutako



kapitalaren artean. Talde Bateratuaren barruan, Laboral Kutxa da arrisku horren eraginpean dagoen Entitatea.

Laboral Kuxan, Diruzaintzaren eta Kapital-Merkatuaren esparruan, mugak ezartzen zaizkie kontrako alderdiaren arriskuarekiko esposizioei, rating- eta iragazki-sistema batean oinarritutako prozedura baten arabera.

b) *Berme errealen eraginkortasuna ziurtatzeko eta arrisku hori estaltzeko narriaduragatiko balio-zuzenketak ezartzeko politikak azaltzea.*

Ikus 9.3 atala

c) *Korrelazioak egoteagatik ondorio kaltegarriak gertatzeko arriskuari buruzko politiken deskribapena.*

Bai Kapitalaren Autoebaluazio Prozesuan, bai Kudeaketa Planaren eta Plan Estrategikoaren garapenean, Entitatearen arriskuei eragin diezaieketen egoera kaltegarrien aukera zabala hartzen da kontuan, eta horietan ere kontuan hartzen dira kreditu-arriskurako eta merkatu-arriskurako korrelazioak.

d) *Kreditu-kalifikazioa murriztuz gero entitateak eman beharko lituzkeen berme errealen eraginari buruzko azalpena.*

Entitatearen kreditu-kalifikazioa murrizteak finantzaketa-kostu handiagoa eta titulizazio-funtsek mantendutako gordailutik irtetea baino ez luke ekarriko; beraz, likidezian bakarrik izango luke eragina, eta eragin hori immateriala izango litzateke.

e) *Kreditu-deribatuen estalduren zenbateko nozionala eta egungo kreditu-esposizioaren banaketa, kredituarekiko esposizio-kategorien arabera.*

Ez da aplikatzen.

f) *Kreditu-deribatuen transakzioen zenbateko nozionala, erabilitako kreditu-deribatuen arabera sailkatuta, entitatearen kreditu-zorrorako erabilitako kreditu-deribatuetan eta bitartekaritza-jardueretan erabilitako kreditu-deribatuetan banakatuta.*

Ez da aplikatzen.



9.2. Metodo Estandarraren erabilera

9.2.1. Metodo estandarra

- a) *Izendatutako Kanpo Kalifikazioko Agentzien (ECAI) eta esportaziorako kreditu-agentzien izenak eta, hala badagokio, edozein aldaketaren arrazoiak.*

Kreditu-arriskuagatiko gutxieneko eskakizunak kalkulatzeko, honako ECAI hauek erabili dira arrisku-haztapenak esleitzeko, kreditu-arriskuaren metodo estandarren arabera: Standard & Poors, Moody 's eta Fitch.

- b) *Esportaziorako kreditu-agentzia edo ECAI bakoitza zein esposizio-kategoriatarako erabiltzen den.*

Gaur egun, ECAIen kalifikazioak erabiltzen diren esposizio-mota finantza-entitateentzat, errenta finkoarentzat (publikoa eta pribatua), administrazio zentralentzat eta enpresentzat da.

- c) *Jaulkipenen eta jaulkitzaileen kreditu-ebaluazioak negoziazio-zorroan agertzen ez diren elementuetara transferitzeko erabilitako prozesuaren deskribapena.*

Entitateak *Metodo Estandarra* erabiltzen du kreditu-kalifikazioak esleitzeko; beraz, ez dago kreditu-ebaluazioen transferentziarik negoziazio-zorroan sartuta ez dauden eta kalifikazio propioak ez duten elementuetara.

- d) *ECAI edo esportaziorako kreditu-agentzia bakoitzaren kanpoko kreditu-kalifikazioaren asoziazioa, hirugarren zatiko II. tituluko 2. kapituluan adierazitako kreditu-kalitatearen mailekin.*

Entitateak *Metodo Estandarra* erabiltzen du kreditu-kalifikazioak esleitzeko, eta, beraz, ez dago loturarik CRR Erregelamenduaren II. tituluko 2. kapituluan adierazitako kreditu-kalitatearen mailekin.

- e) *Kreditu-kalitatearen maila bakoitzari lotutako kreditu-arriskua murriztu aurreko eta ondorengo esposizio-balioak*

Jarraian, esposizioen xehetasuna aurkezten da, arrisku-haztapenen arabera.

Esposizio-kategoriak	Zenbatekoak arrisku-haztapenaren arabera (mila €-tan)								GUZTIRA (mila €-tan)	Hortik: kalifikatu gabe (mila €-tan)
	0	0,2	0,35	0,5	0,75	1	1,5	2,5		
Administrazio zentralak edo banku zentralak	8.320.964	66.346	0	0	0	0	0	0	8.387.310	0
Eskualdeko administrazioak edo tokiko agintariak	1.508.448	0	0	0	0	0	0	0	1.508.448	108.371
Sektore publikoko erakundeak	1.022.884	0	0	20.520	0	0	0	0	1.043.404	0
Garapenerako banku multilateralak	160.060	0	0	0	0	0	0	0	160.060	0
Nazioarteko erakundeak	99.287	0	0	0	0	0	0	0	99.287	0
Entitateak	0	324.122	0	539.850	0	20.762	0	0	884.734	425.668
Enpresak	0	0	0	0	0	1.115.303	32	0	1.115.335	3.016
Txikizkariak	0	0	0	0	1.838.662	0	0	0	1.838.662	1.239.661
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekekin bermatuak	0	0	9.536.783	236.409	0	0	0	0	9.773.192	9.538.961
Ez-ordaintzeagatiko esposizioak	0	0	0	0	0	152.480	32.070	0	184.549	131.465
Arrisku bereziki handiekin lotutako esposizioak	0	0	0	0	0	0	160.302	0	160.302	1.525
Inbertsio kolektiboko erakundeak	0	824	0	0	0	17.353	0	0	18.177	13.071
Errenta aldakorreko esposizioak	0	0	0	0	0	71.785	0	132.093	203.878	152.804
Beste elementu batzuk	174.733	0	0	0	0	650.747	0	41.923	867.402	867.402

14. taula: Metodo estandarra



9.3. Kreditu-arriskua murrizteko teknikak

- a) *Balantzearen barruko eta kanpoko partidak konpentsatzeko politikak eta prozesuak, bai eta entitateak horiek zenbateraino erabiltzen dituen adieraztea ere.*

Entitatearen konpentsazio-politikak, funtsean, deribatuen eragiketei buruzkoak dira, eta konpentsazio- edo netting-akordioen (ISDA) eta kolateralen akordioen (CSA) bidez aurkezten dira.

Kompentsazio-akordioetan, Entitateak kontrako alderdi jakin batekin aurkezten dituen eragiketa positibo zein negatibo guztien merkatu-balioak konpentsatzen dira. Kolateralko akordioetan, berriz, alderdi sinatzaileak gordailu bat egin behar du berme gisa, eragiketaren merkatu-balioak adostutako arrisku-atalasea gainditzen duenean. Bi kasuetan arriskua murriztu egiten da, esposizioa murrizteagatik edo bermea handitzeagatik.

- b) *Berme errealak baloratzeko eta kudeatzeko erabiltzen diren politikak eta prozesuak*

Taldeak indarrean dagoen araudiarekin bat datozen Espainiako aktiboentzako berme errealak baloratzeko irizpideak ditu. Zehazki, balorazioen hornitzaileak hautatzeko eta kontratatuzko irizpideak aplikatzen ditu Taldeak, haien independentzia eta balorazioen kalitatea bermatzeko. Horiek guztiak Espainiako Bankuaren Tasazio Sozietateen Erregistro Berezian inskribatutako tasazio-sozietate eta -agentziak dira, eta balorazioak ECO/805/2003 Aginduan ezarritako irizpideen arabera egiten dira (ondasun higiezinak eta zenbait finantza-helburutarako eskubide jakin batzuk baloratzeko arauari buruzkoa).

Kreditu-eragiketen berme higiezinak eta higiezinak ematen edo alta ematen zaien unean tasatzen dira, azken horiek erosketaren, esleipenaren edo ordainean ematearen bidez, eta aktiboak balio-jaitziera esanguratsua duenean. Horrez gain, Espainiako Bankuaren 4/2017 Zirkularrak ezartzen dituen eguneratze-irizpideak aplikatzen dira. Irizpide horien artean, arau orokor gisa esleitutako zalantza-arriskuen urteko eguneratzea nabarmentzen da.

- c) *Entitateak onartutako berme erreal mota nagusien deskribapena.*

Berme errealen mota nagusiak etxebizitzaren finantzaketarekin lotutako hipotekei dagozkie, Entitatearen inbertsio-jardueraren bi heren inguru baitira. Gainera, berme erreal gisa erabiltzen dira diru-gordailuak, balore higigarriak, lursail eta etxebizitzarik gabeko higiezinak gaineko berme errealak (merkataritza-lokalak, landa-finkak, industria-pabiloiak, etab.), aseguru-polizak eta abar.

	Liburutako zenbateko ez-bermatua (mila €-tan)	Liburutako zenbateko bermatua (mila €-tan)	Hortik: berme errealekin bermatua (mila €-tan)	Hortik: finantza-bermeek bermatua (mila €-tan)	Hortik: kreditu-deribatuek bermatua (mila €-tan)
Maileguak eta aurrerakinak	7.783.773	10.829.931	9.789.582	1.040.349	0
Zorra adierazten duten baloreak	8.884.168	0	0	53.422	0
Guztira	16.667.941	10.829.931	9.789.582	1.093.771	0
Horren inguruan: zalantzaeko esposizioak	198.425	69.103	1.889	67.214	0
Hortik: ez-ordaintzarekin	190.928	67.127	0	0	0

15. taula: Kreditu-arriskua murrizteko tekniken panoramika

d) Kreditu-deribatuen bermatzaile eta kontrako alderdi mota nagusiak, eta horien kaudimena.

Gaur egun, Entitateak ez du estaldurako CDSrik.

e) Merkatuko edo kredituko arrisku-kontzentrazioei buruzko informazioa, kreditu-arrisku aplikatuaren murrizketaren barruan

Gaur egun, Entitateak erabiltzen duen arriskua murrizteko teknikaren barruan, ez dago kreditu- edo merkatu-arriskuaren kontzentrazioirik.

f) Esposizio-kategoria bakoitzerako, berme erreal, finantzario edo kreditu-deribatuen konpentsazioaren ondoren estalitako esposizioaren gutzizko balioa.

Hurrengo txantiloiak kontabilitate-esparru aplikagarriaren arabera kreditu-arriskua murrizteko aitortutako teknika guztiak hartzen ditu barne, RRCan aitortzen diren ala ez kontuan hartu gabe, eta horien artean, zehaztasun-asmorik gabe, bermatutako esposizio guztiekiko erabilitako berme erreal, finantza-berme eta kreditu-deribatu mota guztiak, arriskuaren arabera haztatutako esposizioaren zenbatekoa kalkulatzeko metodo estandarra erabiliz.

Esposizio-kategoriak	Konbertsio-faktoreak aplikatu aurreko eta kreditu-arriskua murriztu aurreko esposizioak		Konbertsio-faktoreak aplikatu eta kreditu-arriskua murriztu ondorengo esposizioak		APR eta APRen dentsitatea	
	Balantzeko esposizioak (mila €-tan)	Balantzetik kanpoko esposizioak (mila €-tan)	Balantzeko esposizioak (mila €-tan)	Balantzetik kanpoko esposizioak (mila €-tan)	APR (mila €-tan)	APRen dentsitatea (%)
Administrazio zentralak edo banku zentralak	8.387.310	0	8.387.310	0	13.269	0%
Eskualdeko administrazioak edo tokiko agintariak	1.492.405	153.431	1.508.256	191	0	0%
Sektore publikoko erakundeak	471.306	145.812	960.397	83.007	10.260	1%
Garapenerako banku multilateralak	105.225	717	160.060	0	0	0%
Nazioarteko erakundeak	99.287	0	99.287	0	0	0%
Entitateak	486.665	15.320	881.478	3.256	355.512	40%
Enpresak	1.191.926	347.104	1.047.224	68.111	1.019.058	91%
Txikizkariak	2.452.953	814.696	1.775.036	63.627	1.283.699	70%
Ondasun higiezinaren gaineko hipotekekin bermatuak	9.758.986	31.603	9.758.979	14.214	3.456.079	35%
Ez-ordaintzeagatik esposizioak	244.704	13.352	183.458	1.091	200.584	109%
Arrisku bereziki handiekin lotutako esposizioak	141.028	53.410	139.538	20.764	240.453	150%
Inbertsio kolektiboko erakundeak	19.353	0	17.002	1.176	17.518	96%
Errenta aldakorreko esposizioak	203.878	0	203.878	0	402.017	197%
Beste elementu batzuk	867.402	0	867.402	0	755.554	87%

16. taula: Metodo estandarra. Kreditu-arriskuarekiko esposizioa eta kreditu-arriskua murriztearen ondorioak



10. Titulizazio-Posizioekiko esposizioak

Aurreko ekitaldietan, aktiboak titulizatzeko hainbat programa egin zituen Entitate Nagusiak, eta hipoteka- eta enpresa-maileguak transmititu zizkien hurrengo titulizazio-funtsei: "I.M. Caja Laboral 1, F.T.A." eta "I.M. Caja laboral 2, F.T.A." 900.000 eta 600.000 mila euro, hurrenez hurren. Aktiboen transferentzia horiek ez zituzten betetzen balantzetik transferitutako aktiboei baja emateko Espainiako Bankuaren 4/2017 Zirkularren 23. arauan ezarritako baldintzak; izan ere, Entitate Nagusiak aktiboen jabetzari lotutako arriskuak eta mozkinak atxikitzen ditu, eta, gainera, aktiboen kontrolari eusten dio. Ondorioz, lehen aipatutako funtsetara transferitutako aktibo garbiei lotutako pasibo bat erregistratu zen.

Aktibo horien saldo bizia 342.372 mila eurokoa zen 2022ko abenduaren 31n. Aipatu beharra dago Laboral Kutxak hurrengo funtsaren titulizazio-bonu guztiak harpidetu zituela: "I.M. Caja Laboral 2, F.T.A.".

Gainera, 2022ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak 18.853 mila euroko mendeko maileguak zituen emanda Aktiboak Titulizatzeko Funts horiei.

2023ko ekainean, Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluak aho batez erabaki zuen hurrengo Funtsa aurretiaz likidatzea: "I.M. Caja Laboral 1, F.T.A.", 2006ko azaroaren 30ean CNMVn erregistratu zuen Funtsaren liburuxkaren 4.4.3 (i) atalean ezarritakoarekin bat etorriz, Hipoteka Mailegu Ez-Kobraezinen Saldo Nominala eratu zenean Hipoteka Maileguen Hasierako Saldoaren % 10 baino txikiagoa baitzen.

Era berean, Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluak aho batez erabaki zuen hurrengo Funtsa aurretiaz likidatzea: "I.M. Caja laboral 2, F.T.A. " 2023ko ekainaren 26koa, 2008ko maiatzaren 22an CNMVrekin erregistratutako Funtsaren liburuxkaren 4.4.3 (vi) atalean ezarritakoaren arabera, Caja Laboral Popular Cooperativa de Crédito eskatutako likidazioa Funtsak jaulkitako eta amortizatzeko dauden bonu guztien lagatzailea eta titularra da, eta Funtsak indarrean dituen kontrako alderdi guztiek baimentzen dute.



11. Merkatu-Arriskurako Metodo Estandarra erabiltzea

11.1. Eskakizun orokorrak

a) *Negoiazio-zorroaren merkatu-arriskuari dagokionez, Zirkular honen ondorioetarako negoziazio-zorroaren eta CRRan definitutako negoziazio-zorroaren artean dauden aldeak*

Negoiazio-zorroari buruzko kontabilitate-kontsiderazioei dagokienez, Entitateak baditu aldeak hura kontabilitaterako eta kaudimenerako kontuan hartzearen artean, hurrenez hurren 4/2017 EBZn eta CRRn oinarrituta definitutakoak.

Aldea da negoziazio-zorroa, kaudimenari dagokionez, epe laburrerako salmentarako kudeatutako zorroa dela, Diruzaintzako tradingaren kudeaketa-eremuari dagokionez. Kanpo geratzen dira, besteak beste, pasiboko estaldura-eragiketak, kasu batzuetan Kontabilitateko Negoiazio Zorroan sartzen direnak.

b) *Posizio-arriskuagatiko, likidazio- eta entrega-arriskuagatiko, eta negoziazio-zorroaren kreditu-arriskuagatiko eta kontrako alderdiagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunen zenbatekoa.*

Ez dago negoziazio-zorroari lotutako baliabide propioen eskakizunik, taula honetan jasotzen den bezala:

	Arriskuaren arabera Haztatutako Esposizioen Zenbatekoa (mila €-tan)
Produktu Zuzenak	0
Interes-tasaren arriskua (orokorra eta espezifikoa)	0
Errenta aldakorreko arriskua (orokorra eta espezifikoa)	0
Kanbio-tasaren arriskua	0
Lehengaien arriskua	0
Aukerak	0
GUZTIRA	0

17. taula: Merkatu-arriskua metodo estandarraren arabera



12. Eragiketa-arriskuari buruzko informazioa

a) *Eragiketa-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunak kalkulatzeko erabilitako metodoak.*

Eragiketa-arriskuagatiko gutxieneko baliabide propioen eskakizunak kalkulatzeko metodo estandarra erabiltzen da, eta horiek erabiltzeko eskaerarekin lotutako izapideak bete dira. Metodo horren arabera, kapital-eskakizunak azken hiru ekitaldietako diru-sarrera garrantzitsuen batez bestekotik abiatuta zehaztuko dira. Diru-sarrera horiek lortzeko, emaitza-kontuko epigrafe hauek gehitu behar dira:

- Interesak eta antzeko errendimenduak
- Interesak eta antzeko kargak
- Kapital-tresnen errendimenduak
- Jasotako Komisioak
- Ordaindutako Komisioak
- Finantza-eragiketen emaitza garbia
- Beste ustiapen-produktu batzuk

Diru-sarrera garrantzitsuak arauak ezartzen dituen negozio-lerroei esleitu behar zaizkie, haztapen-koefizienteak aplikatzeko. Koefiziente horiek zehazten dituzte arrisku horrengatiko baliabide propioen eskakizunak.

2023ko abenduaren 31n, aurrez deskribatutako kalkuluaren arabera, baliabide propioen eskaera 60.123 mila eurokoa zen.

(mila €-tan)

BANKU-JARDUERAK	Adierazle Garrantzitsua			FUNTS PROPIOEN BETEKIZUNAK	ARRISKUAREKIKO ESPOSIZIOAREN ZENBATEKOA
	2021	2022	2023		
Oinarrizko Adierazlearen Metodoari lotutako banku-jarduerak	0	0	0	0	0
Metodo Estandarrari edo Metodo Estandar Alternatiboari lotutako banku-jarduerak	366.451	413.055	695.322	60.123	751.544
Metodo Estandarraren mende	366.451	413.055	695.322	60.123	751.544
Metodo Estandar Alternatiboari lotuak	0	0	0	0	0
Kalkulu-Metodo Aurreratuei lotutako banku-jarduerak	0	0	0	0	0

18. taula: Arrisku operatiboagatiko funts propioen betekizunak eta arriskuaren arabera haztatutako esposizioen inpeteak

b) *Entitateak erabiliz gero, 312. artikuluko 2. atalean aipatzen diren neurketa aurreratuko metodoak deskribatzea, entitatearen kalkulu-metodologian kontuan hartutako barne- eta kanpo-faktore egokien azterketa barne, eta, erabilera partziala izanez gero, erabilitako metodoen irismena eta estaldura.*

Ez da aplikatzen.



13. Negoziazio-zorroan agertzen ez diren errenta aldakorreko esposizioak

a) *Esposizioak helburuen arabera bereiztea, bereziki gainbalioei, erlazioei eta arrazoi estrategikoei dagokienez, eta kontabilitate-teknikak eta balorazio-metodologiak deskribatzea.*

"Beste emaitza global batean aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-aktiboak" zorroan, honako bi baldintza hauek betetzen dituzten tresnak sartzen dira:

- Negozio-eredu baten bidez kudeatzen da, eta haren helburua finantza-aktiboen eta salmentaren kontratu-eskudiru-fluxuak jasotzea da.
- Kontratu-baldintzek diru-fluxuak sortzen dituzte zehaztutako datetan, eta horiek printzipalaren ordainketak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez dira (SPPI testa).

Aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioztatzen dira, kostu amortizatuko Aktibo finantzarioak eta baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak eta azpiko aktibo gisa ondate-tresna horiek dituzten eta horiek entregatuta likidatzen diren deribatu finantzarioak izan ezik.

Aktibo finantzario batek data batean duen arrazoizko balioetat hartzen da behar bezala informatutako alderdi interesdunen artean elkarrekiko independentzia-baldintzetan egindako transakzio batean entregatzeko zenbatekoa. Arrazoizko balioaren ebidentziarik onena merkatu antolatu, garden eta sakon bati dagokion merkatu aktibo bateko kotizazio-prezioa da.

Finantza-aktibo jakin batentzat merkatu-preziorik ez dagoenean, arrazoizko balioa kalkulatzeko antzeko tresnen oraintsuko transakzioetan ezarritakora jotzen da, eta, halakorik ezean, behar bezala kontrastatutako balorazio-ereduetara. Era berean, kontuan hartzen dira baloratu beharreko aktiboaren berezitasun espezifikoak eta, bereziki, aktibo finantzarioak berekin dakartzan arrisku motak. Hala ere, garatutako balorazio-ereduen mugek eta eredu horiek eskatutako onarpenetan egon daitezkeen zehaztasun faltek ekar dezakete finantza-aktibo baten arrazoizko balio zenbatetsia ez etortzea bat zehazki balorazio-datan erosi edo saldu ahal izango litzatekeen prezioarekin.

Arrazoizko balioa behar bezain objektiboki zehaztu ezin zaien beste erakunde batzuen kapitaleko partaidetzak eta azpiko aktibo gisa tresna horiek dituzten eta horiek entregatuz likidatzen diren finantza-deribatuak eskurapen-kostuan mantenduko dira, narriaduragatik izandako galeren arabera zuzenduta, hala badagokio.

Aktibo finantzarioen liburu-etako zenbatekoan izandako aldaketak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira, eta bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak, "Interesen ondoriozko sarrerak" epigrafean erregistratzen direnak eta beste arrazoi batzuei dagozkienak. Beste arrazoi horiek, zenbateko garbian, galdu-irabazien kontu bateratuko "Negoziatzeko mantendutako aktibo eta pasibo finantzarioengatik izandako irabazi edo (-) galera garbiak", "Nahitaez arrazoizko balioan baloratutako aktibo finantzarioengatik izandako



irabazi edo (-) galerak, emaitzetan aldaketak dituztenak" eta "Emaitzetan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan izendatutako aktiboen eta pasiboen ondoriozko irabazi edo (-) galera garbiak" epigrafeetan erregistratzen dira.

Hala ere, "Beste emaitza global batean aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak" epigrafeko tresnen liburuetakozko zenbatekoaren aldaketak ondare garbi bateratuko "Metatutako bestelako emaitza globala" epigrafean jasotzen dira aldi baterako, aktibo finantzario monetarioen kanbio-diferentzietatik eratorritakoak izan ezik. "Metatutako bestelako emaitza globala" epigrafeko zenbatekoak ondare garbi bateratuaren parte izaten jarraitzen dute, harik eta beren jatorriko aktiboaren balantze bateratuan baja eman arte. Une horretan, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra kitatzen dira, eta "Emaitzetan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu ez diren finantza-aktibo eta -pasiboetan, emaitzetan aldaketak dituzten irabaziak edo galerak" epigrafean erregistratzen dira, zor-tresnen kasuan, eta "beste erreserba batzuk" epigrafean, ondare-tresnen kasuan.

Estalitako eta kontabilitate-estaldurako partida gisa izendatutako finantza-aktiboetan, balorazio-aldeak honako irizpide hauek kontuan hartuta erregistratzen dira:

Arrazoizko balioaren estalduretan, estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan sortutako aldeak, estalitako arrisku-tasari dagokionez, galdu-irabazien kontu bateratuan kontabilizatzen dira zuzenean.

Eskudiru-fluxuen estaldura-eragiketen eta atzerriko negozioetako inbertsio garbien zati ez-eraginkorrari dagozkion balorazio-aldeak galdu-irabazien kontu bateratura eramaten dira zuzenean.

Diru-fluxuen estalduretan, estaldura-elementuen estaldura eraginkorraren zatian sortutako balorazio-aldeak Ondare garbi bateratuko "Metatutako bestelako emaitza globala" epigrafean erregistratzen dira aldi baterako.

Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, Ondare garbi bateratuko "Metatutako bestelako emaitza globala" epigrafean jasotzen dira aldi baterako estaldura-elementuen estaldura eraginkorraren zatian sortutako balorazio-aldeak.

Azken bi kasu horietan, balorazio-aldeak ez dira emaitzat hartzen estalitako elementuaren galerak edo irabaziak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen diren arte edo estalitako elementuaren muga-egunera arte.

2023ko abenduaren 31n, Laboral Kutxa Taldeak 167.837-ko (mila €) zenbateko positiboa aurkeztu du, Balorazioagatiko Doikuntzei dagokiena, funts propioak kalkulatzeko.



14. Negoziatio-zorroan sartuta ez dauden posizioetako interes-tasaren arriskuari buruzko informazioa

- a) *Interes-tasaren arriskuaren izaera, funtsezko hipotesia, maileguen amortizazio aurreratuei eta epemuga jakinik gabeko gordailuen bilakaerari buruzko kasuak barne, eta arrisku horren kalkuluaren maiztasuna.*

Interes-tasaren arriskua entitatearen emaitza-kontuan eta ondare-balioan interes-tasen kontrako mugimendu baten ondorioz sor daitezkeen galerei dagokie. Balantze-arrisku hori ebaluatzeko, entitateak simulazioa erabiltzen du oinarrizko tresna gisa, interes-tasen hainbat agertokiren aurrean epe ertainean sor daitezkeen galerak zenbatetsiz.

Simulazioetan jasotzen diren amortizazio aurreratuei buruzko kasuak Entitatean ikusi berri den errealitatearen barne-azterketetan oinarritzen dira. Epemuga jakinik gabeko gordailuen bilakaeraren hipotesiei dagokienez, diru-merkatuetako interes-tasek etorkizunean izango duten bilakaera eta Entitatearen negozio-politika eta marjinak kontuan hartzen dituzten kasuak egiten dira.

Interes-tasaren arriskua hilean behin kalkulatu da

- b) *Entitateko administrazio-organoak interes-tasen beheranzko edo goranzko asaldurak aztertzeke erabilitako diru-sarreraren, balio ekonomikoaren edo beste neurri garrantzitsu baten aldakuntza, arrisku hori kudeatzeko metodoaren arabera.*

APBk sistematikoki aztertzen du interes-tasaren arriskuarekiko esposizioa, eta, kudeaketa aktibo baten bidez, merkatuko interes-tasen nahi gabeko bilakaerek epe ertainean galdu-irabazien kontuan izan dezaketen eragin negatiboari aurrea hartzen saiatzen da bere erabakiek. Bere erabakiak Entitateak interes-tasen hainbat agertokitan epe luzera dituen emaitzak neurtzean oinarritzen dira, balantzearen egiturazko eta balantzetik kanpoko posizioak tratatzen dituzten simulazioen bidez. Hiru hilean behin, Zuzendari Nagusiak arrisku horren bilakaeraren berri ematen dio Kontseilu Errektoreari.

Entitate Nagusiak Gainbegiralearentzat egiten dituen inpaktu-azterketen arabera, interes-tasak oinarrizko 200 puntu jaitsiz gero, interes-marjina % 7,17 inguru murriztuko litzateke lehen urtean. Gainbegiraleak azterketa horiek egiteko ezartzen dituen irizpideak, funtsean, honako hauek dira: hasierako saldoei eta balantze-egiturari eustea; interes-tasen bilakaera, merkatuaren igurikimenean arabera; 5 urteko iraupenaren muga, ordaindu gabeko kontu korranteentzat eta administratuentzat; eta ahulgune bat, merkatuko interes-tasentzat, -% 1.5tik % Ora bitartekoa, ageriko eta 50 urteko epeetarako, hurrenez hurren.

Balio ekonomikoan izango duen eraginari dagokionez, interes-tasek oinarrizko 200 puntu behera egiteak 148,5 milioi euroko murrizketa eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, Baliabide Propioen % 7,28 ingurukoa. Bestalde, tamaina bereko igoera batek 42,0 milioi euroko igoera sortuko luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, Baliabide Propioen % 2,06. Ondare-Balioa kalkulatzeko erabilitako irizpideak interes-tasaren gap atalean aipatutakoen berdinak dira. Duela



gutxi, EBak arau teknikoak eta J txantiloiak argitaratu ditu Europako banku guztien tasa eta interes arriskua kudeatzeko, eta 2024ko irailetik aurrera jarriko dira indarrean.



15. Kargadun eta Kargarik Gabeko aktiboak

Europako Banku Agintaritzak ezarritako araudiaren arabera, likidezia lortzeko eragiketetan berme gisa jarri edo jaso diren aktibo guztiak hartzen dira aktibo konprometitutzat, bai eta finantzaketa ez den beste arrazoi batengatik pasiboari lotutako aktiboak ere.

2023ko ekitaldian konprometitutako aktiboen batez besteko zenbatekoa 2.395 milioi eurokoa da, eta horietatik 2.011 milioi euro kalitate handiko aktibo likidoi (HQLA) dagozkie.

(mila €-tan)

AKTIBOAK	KARGAK DITUZTEN AKTIBOAK				KARGARIK GABEKO AKTIBOAK			
	Kargak dituzten aktiboen zenbatekoa liburutetan	Horietatik, EHQLA eta HQLA hipotetikoki onargarriak	Kargak dituzten aktiboen arrazoizko balioa	Horietatik, EHQLA eta HQLA hipotetikoki onargarriak	Kargarik gabeko aktiboen zenbatekoa liburutetan	Horietatik EHQLA eta HQLA	Kargarik gabeko aktiboen arrazoizko balioa	Horietatik EHQLA eta HQLA
Entitate aitortzailearen aktiboak	2.394.601	2.010.579			24.250.118	7.688.694		
Ondare-tresnak	0	0	0	0	150.843	10.796	150.656	0
Zorra adierazten duten baloreak	2.010.579	2.010.579	1.875.055	1.875.055	6.791.472	6.628.382	6.396.548	6.146.650
horietatik: bonu bermatuak	0	0	0	0	0	0	0	0
horietatik: titulazioak	0	0	0	0	0	0	0	0
horietatik: Administrazio Publikoek emandakoak	2.010.579	2.010.579	1.875.055	1.875.055	6.186.770	6.186.770	5.749.472	5.682.168
horietatik: finantza-sozietateek jaulkitakoak	0	0	0	0	593.089	441.612	637.356	464.482
horietatik: sozietate ez-finantzarioek jaulkitakoak	0	0	0	0	11.613	0	9.720	0
Beste aktibo batzuk	384.022	0	0	0	17.307.803	1.049.516	0	0

19. taula: Kargadun eta kargarik gabeko aktiboak

Hurrengo taulan azaltzen den bezala, jasotako bermeen urteko batez bestekoa 0 eurokoa da, eta jasotako berme errealak edo kargetarako eskuragarri dauden balio propioak 118 milioi eurokoak dira.

(mila €-tan)

ENTITATE AITORTZAILEAK JASOTAKO BERMEAK	Jasotako berme errealen edo kargekin jaulkitako zor propioen balore adierazgarrien arrazoizko balioa		Kargarik gabe	
	Horietatik, EHQLA eta HQLA hipotetikoki onargarriak	HQLA hipotetikoki onargarriak	Jasotako berme errealen edo kargetarako jaulkitako zor propioen balore adierazgarrien arrazoizko balioa	Horietatik, EHQLA eta HQLA hipotetikoki onargarriak
Entitate aitortzaileak jasotako berme errealak	0	0	48.142	26.196
Ageriko maileguak	0	0	0	0
Ondare-tresnak	0	0	0	0
Zorra adierazten duten baloreak	0	0	48.142	26.196
horietatik: bonu bermatuak	0	0	0	0
horietatik: titulazioak	0	0	0	0
horietatik: Administrazio Publikoek emandakoak	0	0	26.196	26.196
horietatik: finantza-sozietateek jaulkitakoak	0	0	0	0
horietatik: sozietate ez-finantzarioek jaulkitakoak	0	0	21.946	0
Ageriko maileguez bestelako maileguak eta aurrerakinak	0	0	0	0
Jasotako beste berme erreal batzuk	0	0	0	0
Jaulkitako zorra adierazten duten balore propioak, titulazioez edo bermatutako bonu propioez bestelakoak	0	0	0	0
Jaulkitako eta oraindik pigoratu gabeko titulazioak eta bonu bermatuak			118.342	82.075
JASOTAKO BERME ERREALAK ETA JAULKITAKO ZOR PROPIOAK ADIERAZTEN DITUZTEN BALOREAK	0	0		

20. taula: Jasotako berme errealak eta jaulkitako zor propioak adierazten dituzten baloreak

Horrela, finantza-pasibo kontingenteen edo mailegatutako baloreen batez bestekoa 1.816 milioi eurokoa da, aktiboen, jasotako bermeen eta autokartera konprometituaren batez besteko zenbatekorako: 2.395 milioi euro.

(mila €-tan)

	Dagozkien pasiboak, pasibo kontingenteak edo mailegatutako balioak	Bonu bermatuz bestelako aktiboak, jasotako bermeak eta zor propioak adierazten dituzten baloreak eta kargadun titulazioak
Hautatutako finantza-pasiboen liburutako zenbatekoa	1.815.631	2.394.601

21. taula: Karga-iturriak



Jarraian, 2023/12/31n Aktiboan eta Balantzetik Kanpo egindako eragiketa intrataldeen xehetasuna aurkezten da, eta Talde Bateratuaren arrisku-profilean eraginik ez dutela ikusten da.

(mila €-tan)

Entitatea	Taldeko sozietate zorduna	Kreditua k	Abala k
Seguros Lagun-Aro, S.A.	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito	0	1.006
Seguros Lagun-Aro Vida, S.A.	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito	0	2
ISGA Inmuebles, SA,	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito	26.880	7.521
A TEGI Green Power, S.L.	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito	638	0

22. taula: Talde barruko aktiboko eta balantzetik kanpoko esposizioak



16. Ordainketa-politika

a) Ordainsarien Batzordea

Laboral Kutxak azken urteetan argitaratutako araudiekin bat datozen politikak eta praktikak ditu ezarrita ordainsarien arloan.

Estatutu Sozialen 35. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontseilu Errektoreari dagokio, besteak beste, goi-kudeaketa, zuzendariak gainbegiratzea eta entitatearen ordainsari-politika onartzea. Organo horrek, 2016ko apirilaren 29an egindako bilkuran, Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea batzorde bereizi gisa eratzea erabaki zuen, Espainiako Bankuaren otsailaren 2ko 2/2016 Zirkularraren 26. araua betez. Zirkular hori gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzkoa da, eta Espainiako ordenamendu juridikoa 2013/36/EB Zuzentaraura eta 575/2013 (EB) Erregelamendura egokitzea osatzen du.

Ordainsarien Batzordearen jarduera nabarmenen artean, honako hauek nabarmentzen dira 2023an:

- Laboral Kutxaren Ordainsari Politikari buruzko Barne Ebaluazioko Txostenaren aurkezpena (2022ko ekitaldia).
- Identifikaturiko Kolektiboko kideei 2022ko ekitaldiko Ordainketa Aldakor Indibiduala aplikatzeko proposamena.
- Ordainketa Aldakor Indibidualaren araudia proposatzea 2023ko ekitaldirako.
- 2023ko Identifikaturiko Kolektiboaren osaera eta VIII. eranskinaren aurkezpena.
- Kontseilu Errektoreari ordainsari-proposamenak aurkeztea.
- Laboral Kutxaren Ordainsari-Politikari buruzko urteko txostena egitea, Kontseilu Errektoreak onar dezan.

b) Ordainsari-sistema

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito lan-bazkideak dituen kreditu-kooperatiba da. Entitatearekin duen lotura ez da lan-arlokoa, sozietate-arlokoa baizik, eta sozietate-organoek hartutako erabakietan finkatutako ordainsari-sistema aplikatu behar zaie.

Entitateak besteren konturako langileak ere baditu, eta horiei Langileen Estatutua, Kreditu Kooperatiben Hitzarmen Kolektiboa eta, banaka edo taldean sinatuta, indarrean dauden gainerako lan-akordioak aplikatzen zaizkie.



Bazkide langileen kasuan, lan-kostua Kontsumo Aurrerakinak eta Hornidura Kuotak osatzen duten Lan Aurrerakinak ematen du, honela:

- Kontsumo-aurrerakina lan-bazkideei beren lan-prestazioagatik ordaindutako ordainsaria da, eta horren parte izango da horretarako ezar daitekeen ordainsari aldakor osagarria eta kontingentea.
- Hornidura kuota Kooperatibak Lagun-Aro BGAeri edo lan bazkideen osasun laguntza eta gizarte aurreikuspena estal dezaketen beste entitate edo erakunde batzuei ordaindutako zatia da.

Kooperatibako Kontseilu Errektoreak onartutako Ordainsariaren eta Balorazioaren Barne Araudiak ordainsari finkoaren oinarritzko egitura ezartzen du, lan aurrerakina osatuz eta kalkulatzuz eta lanpostuak baloratzeko prozeduraren bidez.

Entitatean aplikatu beharreko ordainsari-politikak osagai aldakor bat du, modalitate kolektibo batekin eta banakako beste batekin, lan-bazkide guztiei oro har aplikatzekoa. Ez dago ordainsari aldakor bermaturik.

Maila bateratuko ordainsari-politika bat dator Entitate nagusiaren politikarekin, baina sektoreko araudi propioa kontuan hartuta.

c) Ordainsari aldakorra: ordainsariaren eta entitatearen emaitzen arteko lotura.

Ordainketa Aldakor Kolektiboa (OAK) Benetako Eraginkortasun Indizearen eta Zerga osteko Mozkinaren (ZoM) portaeraren arabera zehazten da, urte bakoitzeko Kudeaketa Planean aurreikusitakoekin alderatuz. Banatu beharreko zenbatekoa banatzeko soberakin garbien edo soberakin erabilgarrien gaineko ehuneko gisa finkatzen da, horretarako onartutako taula baten arabera. Ordainsari-osagai hori lan-bazkide guztiei esleitzen zaie, bazkide bakoitzaren oinarri konputagarriarekiko proportzioan (oinarri konputagarria lan-aurrerakinaren eta bazkide bakoitzaren ordainsari aldakor indibidualaren batura da).

Ordainketa Aldakor Indibiduala (OAI) helburu edo emaitza kuantitatibo eta kualitatibo batzuk lortzearen arabera ezartzen da, arriskuaren kudeaketa zuzentzearen barruan helburu indibidualak, taldekoak eta entitatearenak betetzearen arabera. Aldagai kuantitatiboan eta kualitatiboan neurketa hori irizpide diskrezionalekin osatzen da. OAIaren zenbatekoa bazkide bakoitzarentzat zehazten da, dagokion talde profesionalari dagokion puntuaren balio monetarioa aplikatuz, ekitaldi bakoitzean lortutako helburuen arabera esleitutako puntu kopuruarekin.

Ordainsari osoan, osagai finkoak eta osagai aldakorrak behar bezala orekatuta daude: osagai finkoa ordainsari osoaren zati nahikoa handia da, eta, beraz, politika erabat malgua aplikatu daiteke ordainsariaren osagai aldakorrekin dagokienez, osagai horiek ezin baitira ordaindu.

Ordainsari aldakorraren gutzizkoa nabarmen murrizten da errentagarritasun- edo kaudimen-egoera kaskarretan, entitatearen arriskuarekiko grinaren esparruaren arabera, eta erabat ezabatu daiteke, arriskuari ex ante doikuntzak aplikatzearen ondorioz.



Ordainsari aldakorrak ez du pizgaririk sortzen langile eskudunak beren interesak edo Kutxarenak bezeroen interesen aurretik jartzera bultzatzeko. Ildo horretan, ordainketa finantza-tresna jakin batzuen salmentarekin edo produktu-kategoria zehatzekin lotzea saihesten da bereziki. Gainera, jardunaren ebaluazioak ez ditu salmenta-bolumenak irizpide bakartzat hartzen; aitzitik, irizpide kualitatiboak ere jasotzen ditu, Kutxari eska dakizkioken jokabide-arauak eta barne-prozedurak betetzea baloratzen dutenak, bezeroaren intereserako jarduera sustatzeko.

Osagai aldakorra ez da inolaz ere ordainsariaren osagai finkoaren % 100 baino handiagoa izango.

d) Azken berrikuspena eta Ordainsarien Politikan egindako aldaketak

2023ko irailaren 29an, Kontseilu Errektoreak Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Ordainsarien Politika eguneratzea eta onartzea erabaki zuen. Politika horrek Entitatearen ordainsari-politikaren betekizun orokorrak jasotzen ditu, antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko 10/2014 Legearen 33. artikulua betez, baita identifikatutako kolektiboa osatzen duten langileen kategorien ordainsari aldakorrarenak eta horien deskribapenarenak ere. Halaber, politikak Arrisku Batzordearen aldeko jarrera jaso zuen 2023.09.25ean.

e) Identifikaturiko Kolektiboa

Entitatearen arrisku-profilean eragin nabarmena duten jarduerak egiten dituzten pertsona guztiak dira "identifikaturiko kolektiboa", honako hauek barne hartuta:

- Laboral Kutxako Kontseilu Errektoreko kide guztiak.
- Laboral Kutxako Zuzendari Nagusia.
- Laboral Kutxako Zuzendaritza Kontseiluko gainerako kideak
- Araudia Betearazteko Departamentuko Zuzendaria
- Barne Ikuskaritzako Departamentuko Zuzendaria
- Arriskuaren Kontrol Globaleko Departamentuko Zuzendaria
- Bezeroaren Arreta Zerbitzuko (BAZ) arduraduna
- Diruzaintza eta Merkatu Departamentuko Zuzendaria
- Arriskuen Kudeaketaren Departamentuko Zuzendaria
- Enpresa Sareko Zuzendaria
- Ordainbideen eta Ordainketa Kanalen Departamentuko Zuzendaria
- Seguros Lagun-Aro Vida SAko administrazio-kontseiluko kideak



- Seguros Lagun-Aro S.A.-ko administrazio-kontseiluko kideak
- Caja Laboral Banca Seguros O.B.S.V., S.L.U.ren administrazio-kontseiluko kideak
- Caja Laboral Gestion SGCIIC S.A.-ko administrazio-kontseiluko kideak eta arriskuak kudeatzeko eta araudia betetzeko arloko arduraduna.
- Caja Laboral Pensiones G.F.P., S.A.-ko administrazio-kontseiluko kideak
- Aholkularitza Juridikoko Departamentuko Zuzendaria
- Esku-Hartze Departamentuko Zuzendaria
- Plangintza Departamentuko Zuzendaria
- Pertsonen Departamentuko Zuzendaria
- Garapen Departamentuko Zuzendaria
- Segurtasun Departamentuko Zuzendaria
- Arriskuen Kudeaketaren Departamentuko Zuzendaria
- Batzorde Delegatuko kide guztiak
- APBko kide guztiak
- Eragiketa Batzorde Nagusiko kide guztiak
- Partikularren Negozio Garapeneko Departamentuko Zuzendaria.
- Enpresen Negozio Garapeneko Departamentuko Zuzendaria.
- Antolakuntza Departamentuko Zuzendaria.
- Hirugarrenen Kudeaketako Burua
- Giza Baliabideen Kudeaketa Ekonomikoko Burua
- Segurtasun Logikoko eta CISOko Burua

Urtero, Ordainsarien Batzordeak Identifikaturiko Kolektiboaren osaera zehazten du barne-prozeduretan oinarrituta. Prozedura horiek barne hartzen dituzte bai barne-hautaketako irizpideak, 923/2021 (EB) Erregelamendu Delegatuan adierazitakoen osagarriak, bai baztertze-irizpideak, arriskuen profilean eragin garrantzitsurik ez dutela uste den jardueren identifikaziotik abiatuta, aipatutako erregelamendu delegatuaren 6.2 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik.



2023ko ekitaldian, 54 pertsonak osatzen dute Identifikaturiko Kolektiboa, eta horietatik 48k nolabaiteko ordainsaria jaso dute Entitatearen aldetik.

f) Identifikaturiko kolektiboaren ordainsari aldakorra: kapital-tresnetan geroratzea eta likidatzea

Identifikaturiko Kolektiboko kideei ordainsari aldakor kolektibo eta indibidualari buruz gainerakoei aplikatzen zaizkien arau berberak aplikatuko zaizkie. Ez dago ordainsari aldakor bermaturik.

Ordainketa Aldakor Indibidualari dagokionez, Entitateak Ordainketa Aldakorreko Sistema bat du ezarrita Zuzendarientzat. Sistema horrek gizabanakoaren emaitzak bere antolamendu-unitatearenekin eta entitatearen emaitza globalekin konbinatzen ditu, irizpide finantzarioak eta ez-finantzarioak konbinatuz. Honako osagai hauek ditu:

- RON: Negozio-helburuen araberako ordainsaria.
- ROE: Lanpostuaren helburu espezifikoen ordainsaria.
- ESG: ESG helburuen araberako ordainsaria (Zuzendaritza Kontseiluko kideentzat soilik).
- Diskrezionalak: Agintearen zuzeneko esleipenagatiko ordainsaria, jardueraren arabera

RON helburuak urteko Kudeaketa Planean ezarritako ratioak, zifrak eta adierazleak dira, eta bereziak edo esparru eta maila desberdinetako hainbat antolaketa-unitatek partekatuak izan daitezke. Identifikaturiko Kolektiborako RON helburu horiek finkatzean, emaitzak lortzea hartzen da kontuan, arriskuak zehaztasunaz eta arduraz onartzean oinarrituta.

ROE helburuek, oro har, kudeaketa-tresnak, jarduerak, sistemak, informazioak, antolaketa-aldaketak eta aldaketa fisikoak garatzeari egiten diote erreferentzia. Horiek aurrera egitea eta egitura hobetzea dakarte, eta bezeroari zerbitzu hobea ematea ahalbidetzen dute. Helburu horiek lotura zuzenagoa dute lanpostuaren berezitasunekin, eta kualitatiboak zein kuantitatiboak izan daitezke.

ESG helburuak Ingurumen, Gizarte eta Gobernu Onaren aldagaiekin lotzen dira.

Identifikaturiko Kolektiboaren eta gainerako langileen arteko alderdi bereizgarri bat da ex ante doikuntzetako baten bidez, Ordainketa Aldakor Indibiduala (OAI) Arriskuarekiko Grinaren Esparruko (AGE) core aldagai jakin batzuk betetzearen mende dagoela. Horrela, hautatutako aldagaietako bat arriskuarekiko tolerantzia-mailaren azpitik badago, OAI zero izango da, eta hautatutako aldagaietako bat behaketa-atalasearen barruan badago eta arriskuarekiko tolerantzia-mailan badago, OAI % 10 jaitziko da. Hautatutako aldagai guztiak behaketa-atalasearen gainetik badaude soilik izango da osoa OAI.



Helburuen ebaluazioa urtero egiten da ekitaldi bakoitza ixtean, eta ordainsari aldakorra likidatzen da, errentagarritasun eta kaudimen baldintzak betetzen badira. Horretarako, kapital-tresnen geroratzeari eta likidazioari buruz ondoren garatzen diren irizpideak hartzen dira kontuan.

Identifikaturiko Kolektiboaren ordainsari aldakorra geroratzeko eta kapital-tresnetan likidatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Geroratzea: Lehenengo eurotik aurrerako gerorapena aplikatuko da, ateratzen den zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa bada eta urteko ordainsari osoaren herena baino gehiago ez bada. Kasu horietan, urteko ordainsari aldakorraren % 60 likidatuko da sortzapearen ondorengo ekitaldian, eta gainerako % 40 hurrengo lau urteetan likidatuko da, urte bakoitzean laurden bat. Hala ere, gutxieneko geroratze-proportzioa ordainsari aldakorraren % 60raino irits daiteke identifikatutako kolektiboko kideentzat, baldin eta ordainsariaren "*zenbatekoa bereziki handia*" bada.”.
- Kapital-tresnen likidazioa: Arrazoi berberengatik, ateratzen den zenbatekoak 50.000 euro horiek gainditzen baditu eta urteko ordainsari osoaren herena baino gehiago bada, ordainsari aldakorraren % 50 eskudirutan likidatuko da, eta beste % 50 kapital tresnetan, kapital sozialari egindako ekarpenen bidez. Kapital-tresnen ordainketa hori arestian aipatutako geroratze-arauen eta ex-post doikuntzen mende egongo da. Horrela emandako kapital-tresnak ezin izango dira eskualdatu entregatzen direnetik urtebete igaro arte (12 hilabeteko atxikipena).

g) Ordainsari finkoaren eta aldakorraren arteko ratioak

"Identifikaturiko Kolektiboak" 2023ko ekitaldian jasotako Ordainsari Aldakorrari dagokionez, ordainsari finkoaren % 8,9 eta % 26,1 artean dagoela adierazi behar da.

h) Identifikaturiko Kolektiboaren ordainsariei buruzko informazio kuantitatibo agregatua

Jasotako informazioak Caja Laboral Popular Coop. de Crédito entitateko bertako profesionaleri eta une bakoitzean zuhurtziazko kontsolidazio-taldea osatzen duten gainerako entitateei egiten die erreferentzia, sektore bakoitzaren berezitasunei kalterik egin gabe. Berezitasun horiek Identifikaturiko Kolektiboan sartzen dira, horiek zehazteko indarrean dauden arauak aplikatuta.

Kontseilu Errektoreko kideei, presidentea izan ezik, bertaratze-dieten bidez ordaintzen zaie. Seguros Lagun-Aro Vida S.A., Seguros Lagun-Aro S.A., Caja Laboral Banca Seguros O.B.S.V. S.L.U., Caja Laboral Gestion S.G.C.I.I.C., S.A. eta Caja Laboral Pensiones G.F.P. S.A.-ko administrazio-kontseiluetako kideek 2023ko ekitaldian ez du inolako ordainsaririk jaso kontseilari gisa.

Taula honetan, ekitaldian emandako ordainsariei buruzko informazioa jaso da:



		Gainbegiratzeko-Funtzioa Zuzendaritza Organoarena	Zuzendaritza-Funtzioa Zuzendaritza Organoarena	Goi- Zuzendaritzako beste kide batzuk	Identifikatutako beste langile batzuk
	Kide kop.	1	1	8	44
Ordainsari Finkoa	Ordainsari Finko Osoa (eurotan)	149.264	179.068	1.011.351	2.362.561
	horietatik, eskudirutan	149.264	179.068	1.011.351	2.269.891
	horietatik, beste modalitate batzuk (dietak)				92.670
Ordainsari Aldakorra	Ordainsari Aldakor Osoa (eurotan)	35.000	43.212	266.662	570.032
	horietatik, eskudirutan	35.000	43.212	266.662	570.032
	eta hortik, geroratu	0	0	0	0

23. taula: Emandako ordainsaria ekuilidari dagokionez

Ordainsariei buruzko informazioari dagokionez, honako taula hau aurkeztu da, funtzio-motaren arabera banakatuta:

	Zuzendaritza-Organoaren ordainsaria			Negozio-arloak						Guztira
	Gainbegiratzeko-Funtzioa Zuzendaritza Organoarena	Zuzendaritza-Funtzioa Zuzendaritza Organoarena	Zuzendaritza-Organoa, guztira	Inbertsio Bankua	Txikizkako Bankua	Aktiboen Kudeaketa	Funtzio Korporatiboak	Barne-Kontrol Independentear en funtzioak	Gainerak oak	
Kide kop.	1	1	10	0	2	6	3	14	19	54
horietatik, zuzendaritza organoko kideak	1	1	10							
horietatik, goi-zuzendaritzako kideak				0	0	0	0	0	0	0
horietatik, identifikatutako beste langile batzuk				0	2	6	3	14	19	44
Ordainketa Osoa Identifikaturiko Kolektiboaren (eurotan)	184.264	222.280	1.684.557	0	211.582	565.774	264.621	465.818	1.424.797	4.617.149
hortik, ordainsari aldakorra	35.000	43.212	344.874	0	44.923	119.681	54.529	85.063	265.835	914.906
hortik, ordainsari finkoa	149.264	179.068	1.339.683	0	166.660	446.093	210.092	380.755	1.158.961	3.702.243

24. taula: Identifikaturiko Kolektiboaren ordainsaria

Ez da ordainketa aldakorren likidaziorik egin kapital-tresna gisa, ez dago ordaintzeko dagoen ordainsari geroraturik, eta ez dago milioi bat eurotik gorako ordainketarik.

i) Barne-Kontrol Independenteko eginkizunak betetzen dituzten kideen ordainsaria

Gainerako langileek bezala, kontrol-funtzio baten titularren ordainsariak bi osagai ditu: finkoa bata eta aldakorra bestea. Ordainsari finkoa ordainsari osoaren zati nahikoa handia da, eta, beraz, politika erabat malgua aplikatu daiteke ordainsariaren osagai aldakorrei dagokienez, eta, beraz, posible da osagai horiek ez ordaintzea. Ordainsari aldakorrak bi zati ditu: modalitate kolektibo bat, Efizientzia errearen Indizearen eta zerga osteko Mozkinaren (ZOM) portaeraren arabera zehazten dena, urte bakoitzeko Kudeaketa Planean aurreikusitakoekin alderatuz; modalitate indibidual bat, helburu edo emaitza kuantitatibo/kualitatibo batzuk lortzearen arabera ezartzen dena, entitatearen negozio-helburu batzuk betetzearen arabera, eta beste helburu ez-finantzario batzuk, funtzioaren berezko jarduerarekin lotutakoak. Banakako helburuen formulazioa eta ebaluazioa zuzenean Kontseilu Errektorearen mende daude, ordainsari-batzordearen bitartez.



Taulen indizea

1. taula: Talde kontsolidagarria eta sozietate partaidetuak.
2. taula: Modu desberdinean integratzen diren sozietateak CRR Erregelamenduaren eta 4/2017 Zirkularraren arabera
3. taula: Funtsezko adierazleak
4. taula: Arriskuarekiko esposizioaren guztizko zenbatekoen panoramika
5. taula: Arauzko Funts Propioen osaera
6. taula: Arauzko Funts Propioak balantzearekin berdinkatzea ikuskatutako finantzetako egoera-orrietan
7. taula: Zikloen aurkako kapitalaren koltxoia kalkulatzeko kreditu-esposizio egokien banaketa geografikoa
8. taula: Palanka-efektuaren Ratioari dagozkion kontabilitate-aktiboaren eta esposizioen kontziliazioa
9. taula: Palanka-efektuaren Ratioaren Dibulgazio-taula komuna
10. taula: Balantze barruko Esposizioen banakapena
11. taula: Likidezia-estalduraren ratioaren informazio kuantitatiboa
12. taula: Kreditu-inbertsioaren banaketa geografikoa
13. taula: Bezeroei emandako kredituaren ehunekoaren xehetasuna, jarduera-sektoreen arabera
14. taula: Metodo estandarra
15. taula: Kreditu-arriskua murrizteko tekniken panoramika
16. taula: Metodo estandarra. Kreditu-arriskuarekiko esposizioa eta kreditu-arriskua murriztearen ondorioa
17. taula: Merkatu-arriskua metodo estandarren arabera
18. taula: Arrisku operatiboagatiko funts propioen betekizunak eta arriskuaren arabera haztatutako esposizioen inpoteak
19. taula: Kargadun eta kargarik gabeko aktiboak
20. taula: Jasotako berme errealak eta jaulkitako zor propioak adierazten dituzten baloreak
21. taula: Karga-iturriak
22. taula: Talde barruko aktiboko eta balantzetik kanpoko esposizioak
23. taula: Emandako ordainsaria ekitaldiari dagokionez
24. taula: Identifikaturiko Kolektiboaren ordainsaria.



Zuhurtziako Garrantziko Informazioaren zabalpenari buruzko aitortpena

Entitatearen izena:	Caja Laboral Popular Coop. de Crédito
Diru eta Finantza Sistemaren identifikadorea:	ES3035
Informazio-ondoreetarako:	Informazioa Zabaltzeari buruzko Betebeharrak eta Politikak
Txostenaren aurkezpen-data:	2024/04/26
Txostena baliozkotu duen zuzendaritza-organoko ordezkariaren izena:	Xabier Egibar Gainza
Entitatean duen postua:	Zuzendari nagusia

Ziurtatzen du:


Zuzendaritza Organoak onartu egin ditu EBren 575/2013 Erregelamenduan informazioa zabaltzeko ezarritako baldintzak betetzea ahalbidetzen duten politika ofizialak.

Entitateak zabaldu egin du eskatutako informazioa, politika ofizialekin eta prozesu, sistema eta barne-kontrolekin bat.

Entitatea,

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito

Berriazko ordezkaria:


Xabier Egibar Gainza
Zuzendari nagusia

Arrasate, 2024ko apirilaren 26a